

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko iraila 3a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina. (21. or.).
- Esako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina. (42. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Lizarrako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukariari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (5. or.).
- IV. 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. 2011ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (6. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).
- V. Kontu orokor bateratuaren laburpena (9. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (9. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emitza bateratua (9. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (10. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (10. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontua (11. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta aholkuak (12. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (12. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (14. or.).

VI.4. Inbertsioak (15. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

VI.6. Hirigintza (19. or.).

VI.7. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, SA" udal sozietatea (20. or.).

Eranskina: 2011ko kontu bateratuen oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2011ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Lizarrako udalerriak 15,39 km²-ko hedadura du, eta 14.251 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osakera ondoko grafikoan agertzen da:



2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

• Sektore Publiko Administratiboa, Udalak berak eta bere erakunde autonomo bakarrak, "Julián Romano" Musika Patronatuak, osatua.

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2011-12-31n
Udala	13.082.439	12.909.839	167
Musika Patronatua	376.978	339.023	16
-Bateratzearen doitzeak	-172.138	-172.138	-
Guztizko bateratua	13.287.279	13.076.724	183

Udalak "Julián Romano" Musika Patronatua erakunde autonomoari egindako ekarpena 148.069 eurokoa izan zen, eta 7.000 euroko zenbatekoa ordaintzeke dago.

• Enpresen Sektore Publikoa: 2006an, Udalak "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizorra, SA" enpresa sortu zuen, 60.500 euroko kapital sozialarekin, jabetza osoa Udalarena duena. Elkarte horrek ez du inolako jarduerarik egin sortu zenetik. 2011n, 590 euroko gastuak eta 1.339 euroko diru-sarrerak dauzka.

Udala Jurramendiko Mankomunitateko kidea da, eta horren bitartez uraz hornitzeko eta hondakinak biltzeko zerbitzuak ematen ditu. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartearen ere parte hartzen du. Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek 117.007,56 euroko gastuak eragin dizkiote Udalari.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haien emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak
Zerbitzu administratibo orokor- rrak	x			
Musika eskola		x		
Hirigintza	x			
Ur-hornidura			x	
Hiri-hondakinak			x	
Kale-garbiketa				x
Udal hilerria				x
Kultur Etxea	x			
Liburutegia	x			
Gustavo de Maeztu museoa	x			
Haur-eskola	x			
Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa				x
Gizarte Zerbitzuak	x			
Etxeko laguntza	x			
Kultur Etxea	x			
Gaztetxea	x			
"Tierra Estella" kirol-pabiloia				x
"Remontival" frontoia				x
Berdintasuna	x			
Herritarrentzako Arreta	x			
Diru-bilketa exekutiboa				x
Lantegi-eskolak	x			
Udako igerilekuak				x
Udal-hiltegia				x
Los Llanos aisiarako zentroa				x
Aterpetxeak				x
Eremu urdina eta lurpeko apar- kalekua				x

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- Udalaren aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorrak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokor bateratu horren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenean, berriz, Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren mendeko sozietate publikoaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horrez gain, 2011ko ekitaldiko kontuei buruz Udalak eginiko oroitidazkia biltzen duen eranskin bat ere gehitu da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Lizarrako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bere-

ziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Lizarrako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoak 2011n aurrera eramandako jardueran.

- Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontabilitateko honako egoera-orriak dauzka:

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen kontua ("Julián Romano" Musika Patronatua): aurrekontuaren likidazioa, aurrekontuaren emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Udal-sozietatearen urteko kontuak: egoeraren balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera eta oroitidazkia.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak, zorraren egoera eta eskuhartze txostena.

Zehaztu beharra dago Udalak ez zuela 2011ko aurrekontua onetsi, eta, horrenbestez, 2010ekoa luzatu zuela.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikuszeko aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiiboak ere; aztertu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nagusiak.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman Udalak 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. 2011KO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta labur-labur jaso da txosten honen V. atalean.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatatu dugu:

IV.1. UDALAREN 2011KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta eskubide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoikotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2011ko abenduaren 31n, 73,8 milioi eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2011ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2011KO ABENDUAREN 31KO EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 11,2 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 52 –hau da, ia 6 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 17,2 milioikoak dira. Aldaketa horiek, gastuei dagokienez, inbertsioen kapitulu egin dira; diru-sarrerei dagokienez, berriz, kapital-transferentzietan eta finantza-aktiboetan (diruzaintzako gerakina) egin dira.

Aitortutako betebeharrak 13,3 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 77ko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoia da inbertsio errealean gastuen betetzea txikia izan dela, ehuneko 53koa hain zuzen.

Aitortutako eskubideek 13,1 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 76koa da. Nabarmendu behar dugu zeharkako zergen –ehuneko 65ekoa– eta kapitaleko transferentzien betetze txikia –ehuneko 66koa–.

Gastuen izaerari begiratz gero, gastu arruntek eta inbertsioek, gastu guztien ehuneko 77 eta ehuneko 2 egiten dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 85 dira; diru-sarren ehuneko 55, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 43 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 12 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	46	Tributu bidezko diru-sarrerak	42
Bestelako gastu arruntak	30	Transferentziak	55
Inbertsioak	22	Ondare bidezko diru-sarrerak	3
Finantza-zama	2		
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2010etik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

	2010	2011	Aldaketaren portzentajea 20 11/2010
Aitortutako betebeharrak	16.388.117	13.287.279	- 19
Likidaturiko eskubideak	17.535.498	13.076.724	- 25
Gastuen exekuzioa, %	78	77	
diru-sarreraren betetzea, %	83	76	
Ordainketak (%)	87	94	
% kobrantsa	77	92	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	10.254.886	10.224.329	-
Funtzionamendu-gastuak (1,2 eta 4)	10.140.171	10.050.686	-1
Kapital-gastuak (6 eta 7)	5.887.038	2.908.101	-51
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8 eta 9)	246.193	154.849	-37
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	11.539.901	11.528.238	-
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.722.444	5.545.017	-3
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	5.995.597	1.548.487	- 74
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	65	55	
Gastu arrunten gaineko tributu bidezko diru-sarrerak, %	56	54	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.393.574	-55.706	
Aurrekontu-emaizta doitua	673.422	936.452	139
Aurrezki gordina	1.399.730	1.477.552	6
Finantza-zama (3tik 9ra)	360.908	328.492	- 9
Aurrezki garbia	1.038.822	1.149.060	11
Zorpetze-maila , %	3,13	2,85%	
Zorpetze-muga, %	12,13	12,82%	
Zorpetze-ahalmena (%)	9	9,97%	
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.628.763	951.465	- 64
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	845.292	69.541	-92
Udalaren zor bizia	6.770.959	6.616.110	-2
Biztanle bakoitzeko zor bizia	477	464	-3
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia, %	59	57	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4,84	4,48	

2011n, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 19 gutxiago gastatu du (3,1 milioi euro gutxiago), funtsean inbertsioetan egindako gastuak behera egin duelako –2010ean baino 3 milioi euro txikiagoa izan da–.

Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 25 gutxiago izan dira; hau da, 4,5 milioi euro. Beherakada hori inbertsioetarako kapital-transferentziak arras urritu direlako izan da, 2010ean 6 milioi euro zirenak, 2011n 1,5 milioi izatera pasa baitira.

Izaera arrunteko gastuak ez dira asko aldatu 2011n 2010ekoekin alderatuta; tributu bidezko diru-sarrerak, aldiz, ehuneko 3 urritu dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, -55.706 euro; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izan izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak. 2010ean, saldo hori positiboa izan zen, 1,4 milioikoa.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,9 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 0,7 milioi eurokoa izan zen.

2011n, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 1,5 eta 1,1 milioikoa, hurrenez hurren, eta ehuneko 6 eta ehuneko 11 hazi da aurreko urteko balioekin alderatuta.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,85ekoa da, eta ehuneko 12,82ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako

ahalmen ekonomikorik. Hala eta guztiz ere, Udaleko kontu-hartzaileak bere oroitidazkian adierazten duen bezala, ekitaldian lortutako aparteko diru-sarrerak kenduta, aipatutako zorpetzearen muga ehuneko 3,6koa izanen litzateke.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 69.541 euro (2010ean izan zena baino ehuneko 92 gutxiago).

Epe luzerako zorra 6,6 milioi eurokoa da 2011n; 2010ean, berriz, 6,8 milioi eurokoa izan zen. Zor hori –biztanle bakoitzeko 464 euroraino iristen dena– erakundearen diru-sarrera arrunten ehuneko 57 da, legeak ezartzen duen ehuneko 75eko legeko muga baino beherago, eta horrek gaur egun zorpetzeko duen ahalmena mugatzen du.

Bestalde, 2011ko ekainean, diruzaintzako kreditu bat itundu zen, 1,6 milioi eurokoa –mugaeguna 2012ko ekainean du–. 2011ko abenduaren 31n osorik erabili da.

Laburbilduz, aurreko urtearen alden gastuak eta diru-sarrerak gutxitu dituen arren –ehuneko 19 eta 25, hurrenez hurren– gutxitze hori funtsean inbertsioetan eta haien finantziazioan zentratu dira. 2011n, gastu eta diru-sarrera arruntek 2010eko maila berei eusten diete ia. Magnitude garrantzitsuenei erreparatuta, aurrezkiek gora egin dute, baina ikusi da aurrekontu-saldo ez finantzarioak eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak okerrera egin dutela.

Beste alde batetik, hirigintzaren kudeaketaren ikuspegitik, 1995ean onartutako Lizarrako plangintza ia erabat amaituta dago.

Beraz, epe ertainera Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, beharrezkoa da Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onartzea, alde batetik, gastu arruntei gehiago eusteko, eta, beste alde batetik, ohiko baliabideak sortzeko gaitasun handiagoa edukitzeko. Hori guztia ahaztu gabe beste neurri batzuk ere hartu behar direla kudeaketaren hainbat alderdi hobetzeko; konparazio baterako, gastu-politiken berrikuspena, tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzzea, inbertsioei lehentasuna ematea, diru-laguntzetarako politikaren eragin sozioekonomikoa, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea eta ematen dituen baina nahitaezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi

ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arrisku- en ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plan- gintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen aurreko txostenari erreparatuta –2010eko ekitaldiari buruzkoa da eta 2012ko otsai- lean argiratu zen–, hartan adierazi genuen oraindik ere ebazteko daudela, besteak beste, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, izaera administratibo eta kontabilitatekoa duten gomen- dio batzuk, ekitaldi horretakoak eta aurrekoak; haien artean, honakoei buruzkoak daude:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin.*

- *Memorian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea, besteak beste, hirigintzako jardueri buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsioen zerrenda.*

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentarioa egitea eta onestea.*

- *Beste hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*

- *Udal-sozietateak jarduerarik ez duenez, erakundeak berak existitu behar duen aztertzea.*

Azkenik, udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor gisa, lehentasunezkoztat eta presakotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak gara dezala nola aplikatu behar zaizkien Nafarroako toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan jasotako aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak, haien aurrekontuetan, eta, horrenbestez, finantza-egoeran printzipio horiek eragin ditzaketen inplikazio praktikoak direla eta.

V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Gastuen kapituluak	Behin betiko aurreikus- pena kreditua	Behin betiko aurreikus- penak	Aitortutako betebehar garbiak	Betetako portzen- tajea	Ordain- ketak	Ordain- keten ehunekoa	Ordain- tzeke dagoena
1 Langile-gastuak	6.509.205	6.767.602	6.061.145	90	6.014.936	97	46.208
2 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	3.739.206	3.844.777	3.413.740	89	2.797.807	81	615.932
3 Finantza-gastuak	143.527	218.767	173.643	79	173.643	100	-
4 Transferentzia arruntak	688.184	716.692	575.802	80	523.654	115	52.147
6 Inbertsio errealak	4.624	5.456.069	2.908.101	53	2.833.772	97	74.329
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8 Finantza-aktiboak	-	-	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	163.562	163.562	154.849	95	154.849	100	-
	11.248.308	17.167.470	13.287.279	77	12.498.662	94	788.617

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren atala	Hasierako aurreikus- pena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetako portzen- tajea	Kobrantzak	Kobrantzen ehunekoa	Kobrartzeko dagoena
1 Zuzeneko zergak	3.898.200	3.898.200	3.771.710	97	3.487.316	92	284.395
2 Zeharkako zergak	459.182	459.182	297.003	65	217.668	73	79.335
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.250.079	1.250.079	1.476.303	118	1.232.151	83	244.152
4 Transferentzia arruntak	5.490.948	5.902.956	5.595.835	95	5.327.781	95	268.053
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	149.899	149.899	387.386	258	297.225	77	90.161
6 Inbertsio errealak besterentzea	-	314.240	2.000	-	2.000	100	-
7 Kapital-transferentziak	-	2.360.103	1.546.487	66	1.422.697	92	123.790
8 Finantza-aktiboak	-	2.628.763	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	-	204.049	-	-	-	-	-
	11.248.308	17.167.470	13.076.724	76%	11.986.838	92%	1.089.886

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	13.076.724	17.535.498
- Aitortutako betebeharrak	-13.287.279	-16.388.118
Aurrekontu-emaitza	-210.554	1.147.380
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-479.868	-3.570.811
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	1.346.412	1.459.485
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	280.462	1.637.369
Aurrekontu-emaitza doituia	936.452	673.422

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeke dauden eskubideak	1.229.809	4.194.925
+ Diru-sarrereren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.089.886	4.089.966
+ Diru-sarrereren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	3.704.266	1.946.442
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	511.885	557.499
+ Ordainketen itzulketak	-	-
- Bilketa zaileko eskubideak	-4.076.228	-2.398.981
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-	-
- Ordaintzeke dauden betebeharrak	2.956.162	4.666.570
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	788.617	2.174.191
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	141.840	153.143
+ Diru-sarrereren itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	2.025.705	2.339.236
- Aplikatzeko dauden gastuak	-	-
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.287.053	3.017.266
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	390.765	83.141
Diruzaintza-gerakina, guztira	951.465	2.628.763
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	730.292	1.672.680
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	151.632	110.791
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	69.541	845.292

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

(Eurotan)

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	73.816.320	73.074.017
C Zirkulatuzailea	3.605.186	7.349.621
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.248.599	4.265.991
9 Finantza-kontuak	2.297.087	3.024.130
10 Aktiboaren beste kontu batzuk	59.500	59.500
Aktiboa, guztira	77.421.506	80.423.638

PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	67.760.904	68.848.147
1 Ondarea eta erreserbak	39.998.382	39.695.841
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-1.616.681	302.678
3 Kapitaleko diru-laguntzak	29.379.203	28.849.628
C Epe luzeko hartzekodunak	6.616.110	6.770.959
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	6.616.110	6.770.959
D Epe laburreko hartzekodunak	3.044.493	4.804.561
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.963.162	4.715.781
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	12.094	21.994
8 Pasiboaren beste kontu batzuk	69.237	66.786
Pasiboa, guztira	77.421.507	80.423.667

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	703.363	611.631
61 Langile-gastuak	6.077.103	5.946.310	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.094.955	1.183.346
62 Finantza-gastuak	173.728	114.498	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	3.065.678	3.030.968
63 Zergak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	720.607	710.240
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.408.959	3.576.303			
65 Gizarte-prestazioak	13.694	4.671	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.767.973	5.635.627
67 Transferentzia arruntak	723.069	833.309	77 Kapitalaren gaineko zergak	282.429	552.836
68 Kapital-transferentziak	0	7.036	78 Bestelako diru-sarrerak	1.082.283	2.583.797
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	3.841.045	2.205.132	79 Beren jarduerara aplikaturiko hornidurak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	1.621.186	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.520.309	0
Guztira	14.237.597	14.308.445	Guztira	14.237.597	14.308.445

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.520.309	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)		1.621.186
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)		1.207.970	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	65	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)		0	83 Balore-karteraren emaitzak (Saldo hartzekoduna)		0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	97.185	110.885	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		0
89 Etekin garbia guztira		302.331	89 Galera garbia, guztira	1.617.429	0
Guztira	1.617.494	1.621.186	GUZTIRA	1.617.494	1.621.186

Udalaren eta patronatuen emaitza..... (1.617.429 euro)
 Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitza..... 748 euro
2011ko emaitza bateratua..... 1.616.681 euro

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA AHOLKUAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Kontuen Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011n, ez da aurrekontua onetsi, talde politikoak elkarrekin ados jarri ez direlako. Horrenbestez, 2010eko aurrekontua luzatu egin da, alkatezaren 2010eko abenduaren 28ko dekretuaren bitartez.

- Udalak bere hornitzaileei ordaintzeko epearen 2011ko azterketak –aztertu den laginari dagokionez– erakusten duenez, fakturak/ ziurtagiriak jaso eta ordainketa egin den data bitarteko epea 13,27 egun naturalekoa izan da horniduretarako eta zerbitzuetarako, eta 24,13 egun naturalekoa obretarako; gai honetan, beraz, oro har, ongi betetzen da indarrean dagoen araudia. 2011ko ekitaldian ez da ordaindu ez jaso ere legeak uzten duen epea baino gehiago luzatuz berandutzeagatiko interes-erreklamaziorik.

- Ez da ikusi 2011koak izan eta 2012an kontabilitzatutako kantitate handiko fakturarik.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; ez da gaurkotu, eta Udalaren ondasun guztiak ez daude bertan txertatuta. Hala ere, 2003. urteaz geroztik udal-zerbitzuei atxikitako udal-ondasunen zerrenda bat du, kostuak kalkulatzeko; ondasunen altak zerrenda horretan adierazten dira, eta ez inbentarioan; ez dago kontabilitatearen eta inbentarioaren arteko loturarik. Erabilera publikoko ondasunak, behin bukatu ondoren, ez dira kontabilitatearen ikuspegitik aldatzen erabilera orokorrari emandako ondare-kontura.

- Udalak aurkeztutako oroitidazkian ez dira jasotzen Gedemelsa sozietate publikoaren urteko kontuak –sozietate horrek ez du jarduerarik–; haren datuak bai jasotzen dira balantze bateratuan. Halaber, aipatutako oroitidazkiak ez dakar daturik hirigintza-jarduketeki buruz eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrendari buruz.

- Gabeziak ikusi ditugu espediente administratiboen tratamenduari eta dokumentazioaren kudeaketari dagokionez.

- Diruzaintzako kredituaren izapidetzea prozedura negoziatuaren bitartez egin da, finantza-entitateei kasuko gonbidapena eginez.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2.012	156.252,60	2,36	2,36
2.013	157.714,18	2,38	4,74
2.014	160.514,82	2,43	7,17
2.015	163.375,96	2,47	9,64
2016-2020	1.618.091,62	24,46	34,10
2021-2036	4.360.160,78	65,90	100
Guztira	6.616.109,96	100	

Ikusten den bezala, mugaegunak epe luzera jarrita daude; hala eta guztiz ere, 2012an, gainera, diruzaintzako kreditua amortizatu beharko du: aurreko taulan adierazitakoaz gainera, 1,6 milioi euro.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin.*

- *Memorian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea; besteak beste, hirigintzako jardueri buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zerrenda.*

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*

• *Udal ondasunak —jabari publikoak, ondarakoak eta herri-ondasunak— eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

• *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

• *Espedienteen dokumentazioa kudeatzeko, kontrolatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratuak 6.061.144 euro egiten du; 5.781.807 euro Udalari dagozkio, eta 303.409 euro, berriz, "Julián Romano" Musika Patronatuari. 24.068 euroko bateratze-doikuntza bat erregistratu da. Gastu horiek 2011n sortutako guztiaren ehuneko 46 eta gastu arrunten ehuneko 59 egiten dute.

Udalarentzat, 2010arekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 2 egin du gora, funtsean tailer-eskolak urte osoan jardun duelako lanean. Hona aldaketa horren xehetasunak (eurotan):

Artikulu- lua	Udalaren langile-gastuak	2010	2011	Aldaketaren ehuneko 2010-2011
10	Goi-karguak	147.812,40	139.287,46	-6
11	Kabineteetako behin-behineko langileak	54.717,47	51.896,18	-5
12	Funtzionarioak	2.114.370,80	2.068.287,14	-2
13	Langile kontratudunak	1.469.087,29	1.642.906,70	12
16	Enplegua ematen duenaren kontuko kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.857.457,50	1.879.427,05	1
I. kapitulua, guztira		5.643.445,46	5.781.804,53	2

Funtzionarioen ordainsarien gutxitzea sortu da bai ordainsariak izozteagatik, bai hutsik geratu diren bi lanpostu ez betetzeagatik.

Udalak ez du 2011rako plantilla organikoa onetsi. Hori dela eta, 2010eko ekitaldikoa da onetsi eta argitaratu den azkeneko plantilla.

Udalaren eta "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2010eko ekitaldiko plantilla organikoa 2010eko apirilaren 16an onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak. Behin betiko onespena, berriz, 2010ko uztailaren 12an argitaratu zen eta honakoek osatzen dute:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	97	29
"Julián Romano" Musika Patronatua	16	-
Guztira	113	29

Datu horietatik ondorioztatzen da bete gabe dauden postuak ehuneko 26 inguru direla, Udalan denak.

2010eko eta 2011ko abenduaren 31n, honakoak dira Udalaren langileak:

Langileak	2010	2011
Izendapen askekoak	1	1
Funtzionarioak	65	63
Lan-kontratudun finkoak	5	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	133	98
Guztira	204	167

Aldi baterako langileen barruan, tailer eskolako 33 langile (ikasleak) daude, gizarte enplegu babestuaren arloko 11 langile eta laneratzearen arloko 8 langile daude. Nabarmen gutxitu da enplegu tailerreko (Artxiboa) langileen kopurua, 32

langilekoa izatetik langile batekoa izatera pasa baita.

Udalaren berariazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	2010	2011
Bulegoak	11	10
Udaltzaingoa	29	28
Obra-brigada	9	9
Lorategietako brigada	4	3
Kultur etxea	2	2
Arlo ekonomikoa	4	3
Gizarte-ongizatea	13	15
Emakumezkoa	1	1
Ikastetxe publikoa	3	3
Hirigintza	6	6
Liburutegia	1	1
Museoa	3	3
Kirolak	2	2
Gazteak	4	3
INFOLAN	1	1
0-3 urteko ikastetxea	17	12
Musika eskola	1	1
Margolaritza ikasgelak	3	3
Euskara	1	1
Honainokoa, guztira	115	107
Tailer-eskola	37	40
Enplegu-tailerra (Artxiboa)	32	1
Gizarte enplegu babestua	16	11
Gizarteratzearen arloko langileak	4	8
Guztira	204	167

“Julián Romano” Musika Patronatuko 2011ko eta 2010eko abenduaren 31ko langileak ez dira aldatu, 16 langile izaten jarraitzen baitute.

Gastu horien lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

2011ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat. Kontu-hartzaitzaren arabera, neurri horren bidez lortutako aurrezkoa 152.897 eurokoa izan da.

Gomendatzen dugu plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatu ahal izateko.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (3.413.739 euro) ekitaldiko gastu osoen ehuneko 26 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 33. 2010. urtearen aldean, ehuneko 4 murriztu dira.

Jaitsiera hori zor zaio, batez ere, zenbait kontratatutako prezioetan lortutako merkatzeari –asegurak, garbiketa eta argiteria publikoaren mantentzea–, bai eta kultur jarduerak gutxitu izateari ere.

Kapitulu horretako gastu bateratutik, Udalari 3.357.912 euro dagozkio, eta “Julián Romano” Musika Patronatuari, berriz, 55.827 euro.

Atal honetako gastuen lagin bat aztertu ondoren egiaztatu da gastu horiek dagokien fakturen bitartez justifikatuta daudela eta behar bezala kontabilizatu direla. Edonola ere, hainbat alderdi hobetu litezkeela ikusi da:

- Zenbait kontratuk (aseguruak, salaketen kudeaketa eta zirkulazioko isunak) araudian finkatutako gehieneko epea gainditu dute.

- Laguntza nahiz aholkularitza teknikoaren zerbitzuak emateko gastu batzuk, errepikariak badira ere, halako bolumena dute non zenbatekoaren arabera kontratazio prozedura bat izapidetu beharko bailitzateke.

- Musika Patronatuak kapitulu honetan kontabilizatzen du atezain-lanpostuari dagokion gastua; atezaina Udalekoa da, baina musika-eskolan lan egiten du.

Gure gomendioak:

- *Kontratu-espeditteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.*

- *Urteko gastuen bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

- *Patronatuan kontabilizatzea Udalarentzako transferentzia arrunt gisa erakunde autonomo horretan zerbitzua ematen duen udal-atezainaren gastua.*

VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratua, 2011rako, 5.456.069 eurokoa izan da.

Egindako inbertsioek (2.908.101 euro, zeinetatik 17.742 Musika Patronatuarenak baitira eta gaintzekoa Udalarena) ekitaldiko gastu guztien ehuneko 22 egiten dute, eta kapital-eragiketen gastuen gaineko ehuneko 95. Betetze-maila ehuneko 53koa izan da, eta 2010ean egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 50 jaitsi da.

2011ko ekitaldian egindako adjudikazioen lagin bat aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2011n betetako zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta)
Argiteria publikoaren berritzeko proiektua eta zuzendaritza	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2	23.036	16.125	16.330
Argiteria publikoaren berritzea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	5	294.754	199.713	197.588
Tailer-eskolaren lehenengo fasearen eraikuntza	Obra	Irekia, Europako mugatik behera / eskaintzarik onena	19	585.094	409.565	0

Eginiko azterketaren ondorioz honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu:

VI.4.1. Argiteria publikoaren berritzea

Nafarroako Gobernuaren 2009-2012 urteetarako Toki Inbertsioen Ohiz kanpoko Planak 2012rako aurreikuspenetan jasotzen zuen Lizarrako Udalaren obra bat, "Argiteria Publikoaren Berritzea" izena zeramana eta 333.491 euroko kostua kalkulatuta zeukana. Ehuneko 70eko diru-laguntza zegoen inbertsio horretarako.

Aldi berean, Udalak 31.440 euroko diru-laguntza bat eskatu zion Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, eta 2011ko apirilean lortu zuen, pasealeku batean LED lanparak jartzeko. Lan horretarako kalkulatu den kostua 145.713 eurokoa da. Inbertsio hori jada aurreikusita zegoen arestian aipatutako "Argiteria publikoaren berritzeko" obretan.

Bi diru-laguntza horiek bateraezinak direla deklaratu dago.

Hala eta guztiz ere, Berrikuntza Departamentuaren diru-laguntzan ezarritako baldintzek exijitzen zuten obrak 2011ko urriaren 31 baino lehen amaituta egotea. Horrenbestez, diru-laguntza hori ez galtzarren, Toki Administrazioiko Departamentuari eskatu zitzaion –eta lortu ere lortu zen– 2012rako aurreikusita zegoen diru-laguntza 2011ko ekitaldira aurreratzea; horrek berarekin ekarri zuen proiektuaren adjudikazioa eta obra nahitaez 2011ko lehenengo sei hilekoan egin behar izatea.

Azken betebeharrak horrek eragin garrantzitsua dauka proiektua eta obra kontratatzeke espedientean izapidetzean. Biak ala biak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez negoziatu ziren, tokiko enpresei gonbitea eginez; adjudikazioaren zenbatekoek ehuneko 30eko eta 32,2ko baja izan zuten, hurrenez hurren, proiekturako eta obretarako.

Gastua	Zenbatekoa (BEZa barne)	Finantziakzioa	Zenbatekoa (BEZa barne)
Obrak	233.154	Toki Administrazioiko Departamentuaren diru-laguntza	178.282
Obraren proiektua eta zuzendaritza	19.270	Berrikuntza Departamentuaren diru-laguntza	31.440
		Udala	42.702
Gastua, guztira	252.424	Finantziakzioa, guztira	252.424

VI.4.2. Tailer-eskolaren lehenengo fasearen eraikuntza

2005eko maiatzean, "tailer-eskola eraikitzea" izeneko proiektua idazteko lehiaketarako deialdia egin zen. Proiektua 2006ko urrian idatzi zen. Aurrerago, 2011ko maiatzean, eta Udalak eskatuta, proiektu hori aldatu eta gaurkotu zen.

Proiektu gaurkotuak 1,3 milioi euroko aurrekontu orokorra dauka (BEZik gabe), eta arrazoi ekonomikoengatik eta aurrekontu-arrazoiengatik, haren betetzea bi fasetan azpizatitzen da:

Estatuko 2010erako eta 2011rako aurrekontu orokorretan, Lizarrako Udalaren bi diru-laguntza aurreikusten ziren tailer-eskola hori eraikitzeke. Diru-laguntza horiek 400.000 eta 300.000 euro egiten zuten, hurrenez hurren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2011ko irailaren 15ean, tailer-eskola eraikitzeke lanen 1. faseko obraren lizitazioa atera zuen, 585.093,53 euroko zenbatekoan (BEZik gabe).

Lizitazio hori arautzen duten baldintza-orrietan, honako alderdiak azpimarratzen ditugu, txosten honen ondorioetarako:

- Kontratuaren xedea: 1. faseko obrak. Hala eta guztiz ere, aukera jasotzen da, behar adinako aurrekontu-krediturik izanez gero eta adjudikatu beharreko kontratua aldatuz gero, 2. faseko unitateak ere egiteko; horretarako, balizko eskaintzaileek berariazko eskaintza ekonomiko bat egin erantsi beharko dute nahitaez.

- 2011ko abenduaren 31 baino lehen, nahitaez, 315.254 euroko (BEZik gabe) obrak exekutatu behar dira; hau da, obraren ehuneko 54. Baldintza hori ezartzen da Udalak zenbateko hori Estatuaren aurrean justifikatu behar duelako, emandako diru-laguntza dela eta.

- Eskaintza ekonomikoan anormalki baxutzat joko dira lizitazio prezioaren ehuneko 30a baino txikiagoak direnak, hau da, 409.565,47 eurotik behera (BEZik gabe) jotzen duten eskaintzak.

- Eskaintza ekonomiko horiek nahitaez honako-ek buruzko baldintza-orrietan jasotako bi ereduaren arabera aurkeztu beharko dira:

1. eredu. 1. faseko obretarako eskaintzako zenbatekoa, aipatu berri dugun lizitazio-zenbatekotik abiatuta.

2. eredu. Honakoari buruzkoa: "Baldin eta 1. fasean aldatetarik badago eta 2. faseari dagozkion obra-unitate berriak egin behar badira, unitate berri horietarako prezio zehatzak erantsi direnak dira, eta 2. fasearen guztizko prezioak honako zenbatekoa egingen du: ..." Ez da aurreko lizitazio zenbatekorik ageri.

Espedientean jasota dagoen informazioaren arabera, gai hori ezartzen da, zeren eta abiapuntua baita eskaintzaileek 1. faseko obretarako baja aipagarriak aurkeztuko dituztela, eta soberakin horrekin 2. faseko obrei ekinen zaiela, Estatuari justifikatu beharreko zenbateko osoa kontsumitu arte. Horrezaz guztiaz gainera dago, obra 2011ko

abenduaren 31 baino lehen eginda edukitzea, adierazitako zenbatekoan.

- Aurreko eskaintza ekonomikoak baloratzeko irizpideetan, 70 puntu ematen dira (hautapen prozesuko 100 punturen gutzitkotik): 45 puntu 1. ereduko eskaintzarako eta 25 puntu 2. ereduko eskaintzarako.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

1. Baldintza-orriek kontratazio prozesu osoa nahasten duen inguruabar bat biltzen dute –2. faseko prezioen balorazioa–. Prozesu hau 1. faseko obrei buruzkoa da, baina, eskaintza ekonomikoaren balorazioan, puntu batzuk ematen dira 2. faseko balizko obra batzuentzat. Horrek, neurri batean, kontratuaren xedea nahasten du, nahiz eta Udalaren interes ekonomikoen aldekoa izan daitekeen.

2. Kontratazio-mahaiak enpresa bat baztertu zuen soilik 2. faseari buruzkoa zen eskaintza erlatiboki baxuegi bat aurkezteagatik. Kanpo uzte hori justifikatzen da kontratazio-mahaiak hartutako irizpidearengatik, hain zuzen ere erabaki zuenean “1. faseko eskaintza anormalki baxuegian aplikatu beharreko irizpideak 2. fasean aplikatzen diren berak izan direla”.

3. Baztertutako enpresak, mahaiak hori eskatuta ere, ez zuen alegazio justifikagarriarik aurkeztu baja horren arrazoizkotasun ekonomikoari buruz.

4. Mahaiak erabaki zuen obrak beste enpresa bati adjudikatzea, 409.565,47 euroko zenbatekoan (BEZik gabe); egintza hori Tokiko Gobernu Batzarrak berretsi zuen gero. Zehaztu beharra dago 1. faserako bi enpresek –adjudikazio-hartzaileak eta baztertutako enpresak– eskaintza ekonomiko bera aurkeztu zutela, eta adjudikazio-hartzaileak bestea balorazio teknikoarengatik gainditzen zuela guztiko puntuazioan; baztertutako enpresa hirugarren tokian gelditu zen.

5. Kontratazio Publikoaren Batzarrak kontratazio-mahaiaren erabakia, aipatutako enpresa baztertzeak, baliogabetu zuen eta, halaber, kontratua adjudikatzeke Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia baliogabetu zuen.

6. Kontratazio-mahaiak, bi enpresek –adjudikazio-hartzailea eta baztertutakoa– izenpetutako idazkia ikusita, erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzea obra adjudika ziezaiola baztertutako enpresari, 409.565,47 zenbatekoan (BEZik gabe). Aipatutako idazkiak erabaki bat jasotzen du, zeinaren bidez adjudikazio-hartzaileak aurrekoarekin obraren ehuneko 55 kontratatuko baitu. Exekuzio hori 225.375,42 euroko zenbateko-

an (BEZik gabe) baloratu zen. Halaber, ezartzen da 2012ko urtarrilaren 24a baino lehen, aurreko lerrokadetan adierazitako zenbatekoa exekutatu behar dela, Estatuaren eskutik lortutako diru-laguntzak biltzen dituen justifikazio-betekizunak betetze aldera.

7. Gure iritziz, mahaiak beste adjudikazio-proposamen bat egin behar zuen, lehenengo enpresaren aldekoa, zeren eta hark aurkeztu baitzuen 1. faserako eskaintzarik onena. Alabaina, Udalak interpretatu zuen Kontratazio Publikoaren Batzarraren erabakia aukera hori baliogabetu zuela.

2011ko abenduaren 22an sinatu zen kontratu berria.

Geroko egitate gisa, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- 2012ko urtarrilean eta ekainean, Estatutik jasotako diru-laguntzen justifikazioa aurkeztu zen.

- 2012ko maiatzean, lehenengo adjudikazio-hartzaileak –orain azpi-kontratista denak– idatziz azaldu zizkion Udalari enpresa kontratatzaileak hartutako zorrak eta haien ordainketa eza, eta eskatu zuen behar ziren neurriak har zitezela haien kobratu ahal izateko. Fakturatutako obraren zenbatekoa, zeina lehenengo bi ziurtagiriei baitagokie, 249.381,36 eurokoa izan zen. Zenbateko hori jaso gabe zegoen txosten hau idazteko datan.

- 2012ko ekainean, obra-zuzendaritzak jakinarazi zuen adjudikazio-hartzaileak obra alde bakarretik abandonatu duela. Horren ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen 1. faseko obrak egiteko kontratua desegiteko espedientea irekitzea, kontratistak bere gain hartutako kontratubetebeharren ez-betetze errudunarengatik; halaber, proposatu zuen kontratistak aurkeztutako bermea atxikitzea. Kontratua desegin zen eta, aldi berean, adjudikazio-hartzailea hartzekodunen konkurtsuan zegoela deklaratu zen.

- Data horretara arte, adjudikazio-hartzaile horri, behar ziren ziurtagirien bitartez, 400.814,95 euro ordainduak zitzaizkion, guztira.

- Adjudikazio-hartzaileak exekutatu gabe utzitako obra 90.000 euro ingurukoa dela jotzen da, eta haren exekuzioa 2. faseari dagozkion obrak egiteko hautapen prozesuaren barruan sartu da.

Azken batez, aurreko iruzkinek aditzera ematen dute obren behar adinako denbora-plangintzarik ez zela egin, eta alderdi hori are larriago bihurtu zela emandako diru-laguntzen justifikazio-betebeharrengatik eta eraikuntzaren sektorea pairatzen ari den krisi ekonomikoko egoerarengatik.

Gure gomendioak:

- *Inbertsioetarako hautapen-prozesuen plan-gintza eta hasierako programazioa hobetzea, kon-tuan hartuz obra horietan eragina izan ditzaketen baldintza partikular guztiak.*

- *Kontratuaren xedearekin zuzenki lotutako hautapen-irizpideak definitu eta aplikatzea.*

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubide batera-tuek 13.076.724 euro egiten dute; 190.955 "Julián

Romano" Musika Patronatutik heldu dira, batera-tzearen doitzeak deskontatu ostean. Betetze-maila ehuneko 76koa izan da; 2010ean, ordea, ehuneko 83koa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 88 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 22 kapital-eragiketeki.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 25 murriztu dira, eta aldaketa hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako esku-bide garbiak, 2010	Aitortutako esku-bide garbiak, 2011	Aldaketaren ehuneko, 2011/2010
1 Zuzeneko zergak	3.883.146	3.771.710	-3
2 Zeharkako zergak	410.898	297.003	-28
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.428.400	1.476.303	3
4 Transferentzia arruntak	5.408.169	5.595.835	3
5 Ondare diru-sarrerak	409.288	387.386	-5
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	11.539.901	11.528.237	0
6. Inbertsio errealen besterentzea	2.000	2.000	0
7 Kapital-transferentziak	5.993.597	1.546.487	-74
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	5.995.597	1.548.487	-74
Diru-sarrerak, guztira	17.535.498	13.076.724	-25

Aurreko konparazioan, bereziki nabarmentze-koa da kapital-transferentzien eta EIOZaren bidez-ko diru-sarrek behera egin dutela, eta tasek eta transferentzia arruntek, berriz, gora egin dutela.

2011ko ekitaldian, 2010eko ekitaldian onetsi ziren tasa eta tarifa berak aplikatu ziren.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortu-tako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zerga	2010	2011	Aldaketaren ehuneko, 2011/2010
Lurraldeko kontribuzioa	2.245.919	2.297.598	2
Ibilgailuak	710.240	720.607	1
Lursailen balioa handitzea	552.836	282.429	-49
JEZa	374.151	471.077	26
EIOZa	410.898	297.003	-28
Guztira	4.294.044	4.068.714	-5

Udal-zergen bidezko diru-sarrerak ehuneko 5,25 urritu dira 2011n, 2010arekin alderatuta. Urri-tze horren arrazoiak lurraren balioen gehikuntza eta EIOZa izan dira batez ere. Halaber, nabarmentzekoa da JEZaren igoera, zeinaren arrazoa izan baitira, funtsean, batetik, Nafarroako Gobernutik jasotako eskubide aitortuak, aparteko izaera dutenak eta 48.825 euro egiten dutenak –2006tik

2010era bitarteko hobariengatik–, eta, bestetik, sustatzaileengandik jasotako 51.719 euro –2007tik 2010era bitarteko urteei dagozkienak–.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraldeko kontribuzioa	0,2578	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gainerako Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,37-2,94	2tik 3,8ra
Karga-tasa	17,10	8-20
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	5	2-5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatuta ahal izan dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Nabarmentzekoa da 2012ko ekitaldian Udalarik beste ekitaldi batzuetan EIOZaren kontzeptuan ordaindutakoen itzulketak eskatu zaizkiola –892.457 euro egiten dute–. Eraiki behar ziren baina, azkenean, osorik eraiki ez ziren etxebizitza-sustapenen EIOZari dagozkie, eta bi enpresari ordaindu behar zaizkie. Haiekin, itzulketak-formula bat adostu da, geroraturtako ordainketa baten bitartez.

VI.6. HIRIGINTZA

Lizarrako Udalak bere baliabideekin egiten ditu hirigintzako zereginak, Hirigintza Zerbitzuen Sailaren bitartez. Bertako jarduerak egiteko langileak honakoak dira: arkitekto bat (bulegoburua), udal zainzaile bat eta hiru administrari ofizial.

Horrez gainera, Udalak hainbat kontratu gauzatu ditu hirigintzaren alorreko kanpoko aholkularitza-enpresekin (arkitektura, aholkularitza juridikoa, arkeologia eta ingeniari-tza), eta horiek 2011n 77.080 euroko gastua sortu dute guztira.

Indarrean den Hirigintza Plana 1995ean onetsi zen, eta ia erabat amaitu da haren garapena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitartekoa, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. 2007ko maiatzaren 3an Udala Plan Orokorren hasierako onespena.

Planaren Jarraipen Batzordeak jasotako alegazioei buruzko txosten teknikoa 2008ko martxoan aurkeztu zen.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 7an, jasotako alegazioak alde onartzea adostu zuen, eta baita udal talde politikoei egindako proposamen jakin batzuk ofizios sartzea ere. Egindako aldaketek 2007an hasiera batez onetsitako Udalaren Plan Orokorreko egitura organikoaren funtsezko aldaketa zekartela iritzita, Udalak 2009ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran onetsi zuen espedientea jendaurrean berriz jar-tzea.

Hasierako onespene horri helegitea aurkeztu zitzaion Nafarroako Epaimahai Administrazioaren aurrean, eta hark helegitea aurkeztu zutenei eman zion arrazoa, forma akatsa zela eta. Txosten hau idazteko egunean, oraindik ere ez da plan berria onetsi; horri dagokionez, nabarmendu behar dugu 2007ko urtarriletik –hasierako onespenearen data– denbora luzea iragan dela.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ezta artxibategirik ere. Hirigintzako sailatik, 2011ko martxoaren 17an, proposamen bat aurkeztu zitzaion Udaleko Burutzen Mahaiari: “Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxibategia antolatze-ko eta funtzionatzeko arauak”, baina haren edukia oraindik ez da onetsi.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta berezia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenei egokitzeko prozesua osatzea eta plan orokor berria behin betiko onestea.*

- *Hirigintzako hitzarmenak erregistratzea eta artxibatzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

- *Hirigintza-jardueri buruzko espedienteen barne-kontrol handiagoa egitea sailetik beretik eta Udalaren zerbitzu teknikoetatik.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik berezita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako.*

VI.7. "ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, SA" UDAL SOZIETATEA.

"Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, SA" sozietate anonimo unipersonala da, eta Lizarrako Udala da akziodun bakarra; 2006an sortu zen enpresa, 60.500 euroko kapital sozialarekin.

Osoko Bilkurak sozietatearen kontuak onesteko akta eskuratu dugu. 2011ko egoera-balantzea, galeren eta iragazien kontua eta ondareko aldaketen egoera-orria jasotzen ditu. Aurreko urteko txostenean adierazi genuen bezala, ez dago jasota 2010eko urteko kontuak berariaz onetsi zirenik.

Udal-sozietate horren egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua, 2011ko abenduaren 31n, honako hauek izan ziren:

Egoera-balantzea

AKTIBOA	2011	2010	Ondare garbia eta PASIBOA	2011	2010
Aktibo arrunta	60.960	60.212	Ondare garbia	60.960	60.212
Zordunak	162	145	Kapitala	60.500	60.500
Finantza-inbertsioak epe laburrera	59.500	59.500	Borondatezko erreserbak	-288	-498
Eskudirua	1.298	567	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa	-	-138
			Ekitaldiko emaitza	748	348
			Pasibo korrontea	-	-
			Merkataritzako hartzekodunak	-	-
Aktiboa, guztira	60.960	60.212	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	60.960	60.212

Galeren eta irabazien kontua

	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
A) Ustiatzearen emaitza	-367	-742
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-367	-742
B) Emaitza finantzarioa	1.339	1.153
b) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	1.339	1.153
C) Zerga aurreko emaitzak	972	411
Etekinen gaineko zergak	-224	-62
Ekitaldiko emaitza	748	348

Diru-sarrerak etorri dira Udalak jarritako kapitalaren epe finkoko ezarpenetik; gastuak, berriz, kontabilitatea eramateko eta urteko kontuak egiteko lansari profesioaletatik eta ordaindu beharreko sozietateen gaineko zergatik.

Gomendatzen dugu udal-sozietatea likidatu eta desegin dadila, jarduerarik ez baitu.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Iruñeko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (21. or.).
- II. Erakundearen deskribapena eta aplikatzeko den araudia (21. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (21. or.).
 - II.2. Araudia (24. or.).
- III. Helburua (24. or.).
- IV. Norainokoa eta mugak (25. or.).
- V. Iritzia (25. or.).
 - V.1. Udalaren kontua (25. or.).
 - V.2. Udalak legedia betetzea (25. or.).
 - V.3. Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomikoa (25. or.).
 - V.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (27. or.).
- VI. Finantza egoera eta aholkuak (28. or.).
- VII. Erakunde autonomoi buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (31. or.).
 - VII.1. Aurrekontua eta kontu orokorra (31. or.).
 - VII.2. Udalaren finantza-egoera (31. or.).
 - VII.3. Udaleko langile-gastuak (33. or.).
 - VII.4. Udalaren ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (34. or.).

VII.5. Udalaren inbertsioak (36. or.).

VII.6. Udalaren transferentziengatikoko gastuak (38. or.).

VII.7. Tributuak, prezio publikoak eta Udalaren bestelako diru-sarrerak (39. or.).

VII.8. Udalaren inbertsio errealeen besterentzea (41. or.).

VII.9. Iruñeko Udalaren Haur-eskolak erakunde autonomoa (41. or.).

Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2011ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Kontuen Ganberak Iruñeko Udalak 2011ko ekitaldian izandako jardura finantzarioari buruzko arauzotasunaren fiskalizazioa egin du.

Azterlan hau Kontuen Ganberak 2012. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako lau teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Landa-lana 2012ko ekainetik abendura bitartean egin zen.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2011ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak eginikoa, erantsi dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Iruña udalerrri bat da, 2011ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 197.932 biztanle zituena eta 25,098 km²ko azalera duena.

Udalaren antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren ondoko organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politiko gorenen organoa baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta alkatea.

Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko xedapen batez onetsia, honakoa da:

- Alkatetzaren Kabinetea
- Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza.
- Gerentzia.
- Gobernuko zortzi alorrak.

Alkatetzaren Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Gerentzia zuzenean alkatearen menpekoak dira, eta gobernuko zortzi alorrak

zinegotzi delegatuen menpekoak dira. Alorrek eta Alkatetzaren Kabineteak zuzendaritza bana eta idazkaritza tekniko bana badauzkate, eta lanpostu horiek izendapen askekoak dira.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak

a) Udalaren haur-eskolak: haur-eskolen zerbitzua kudeatzeko.

b) Hirigintzako Udal Gerentzia: Iruñeko udalerriaren hirigintza kudeatzeko.

- Merkataritza-sozietateak.

Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietateetan:

Enpresa	Partaidetzaren ehunekoa	Sozietatearen xedea
Comiruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak
Asimec, S.A.	100	Etxez etxeko laguntza


Udalak ehuneko 31,49ko partaidetza du Oficina de Congresos de Pamplona, Convention Bureau, S.L. enpresan; enpresa horrek kongresukudeaketa du jarduera gisa. 2011n enpresa hori likidatzen jardun da.

- Fundazioak:

Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago.

Grafikoki, honakoa da Iruñeko Udalaren eta haren menpeko entearen egitura –ente horien artean Erruki Etxearen Fundazioa sartu dugu–:



(1) Administrazio orokorrean, alkatearen menpekoak diren honakoak sartzen dira: Gerentzia, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Alkatezaren Kabinetea

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honakoak dira 2011ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa.

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 12-31n
Udala	230.778	211.176	1.193
Hirigintza Gerentzia	28.075	24.293	31
Haur-eskolak	7.755	7.749	161

2011n, Udalak 5.618.901 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 4.931.306 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak.

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruiña, S.A.	551	532	19	7,41
Mercairuña, S.A.	1.374	1.206	168	14
ANIMSA	7.968	7.965	3	113,12
Pamplona Centro Histórico S.A	2.090	2.216	-126	4,5
Asimec, S.A.	1.734	1.690	44	61,06

- Fundazioak.

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Gayarre Antzokia	2.229	2.301	-72	14
Erruki Etxea	16.900	16.242	658	198,56

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxis).

II.2. ARAUDIA

2011n zehar, Iruñeko Udalak bete beharreko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- Urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki araubidea gaurkotzekoa.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- Abenduaren 16ko 57/2003 Legea, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, toki-entitateentzat ezarritako berezitasunekin.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa.
- Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena.
- 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Instrukzioaren onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.
- Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.
- 2011ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.
- Udal ordenantzak eta 2011rako zerga-arauak.
- Udalaren 1998ko otsailaren 27ko erregelamendu organikoa.
- Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko dekretua, udal antolamenduari buruzkoa.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2011ko ekitaldiko arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin genuen.

Lana honen xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten zuen, 2011ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak legeak bete dituen 2011ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioan.
- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera bateratua 2011ko abenduaren 31n.
- Ea 2010ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren norainokoa 2011ko kontua da. Haren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna da eta, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orriek osatzen dute:

- Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

Fiskalizazio-lana honetan zetzan: Udalaren barne kontrola, aurrekontuko gastu eta diru-sarreren lagin bat eta ondare-kontuak aztertzea, hautapen-proba batzuen bitartez eta lanaren xedeak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako auditoria-teknika batzuk erabiliz.

Menpeko enteei dagokienez, Haur-eskolak erakunde autonomoaren langile-gastuak fiskalizatu ziren.

Halaber, kanpoko profesionalen enpresa publikoetan eta udal fundazioetan eginiko auditoriak aztertu ziren.

Halaber, Udalaren beraren finantza-egoera eta finantza-egoera bateratua –hau da, Udalarena, erakunde autonomoena eta partaidetza osoa duen sozietateena batera biltzen dituen– aztertu ziren.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman udal honek 2011ko ekital-

dian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

V. IRITZIA

Honakoa da arauzkotasunari buruz eginiko fiskalizazioaren inguruko iritzia, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

V.1. UDALAREN KONTUA

Udalak udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko azterlan aktuarial bat badauka. 2009an eginiko azterlan horren arabera, pasiboen sistematik eratorritako betebeharrak urteko 21 milioi egiten dute, batez beste, 2011tik 2019ra doan aldirako. Hala eta guztiz ere, balantzean ez da erregistratzen etorkizuneko betebeharrorietarako probisiorik.

Aipatutako salbuespen hori kenduta, Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten du 2010eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta data horretako ekonomia-erakundearen buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

V.2. UDALAK LEGEDIA BETETZEA.

Oro har, 2011ko ekitaldian zehar, Udalaren jarduera finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

V.3. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKOA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2011ko ekitaldirako hasierako aurrekontu bateratua 267,35 milioi eurokoa izan zen. 24,18 milioi euroko aurrekontu-aldaketa egin ziren; zenbateko horrek hasierako aurreikuspenen ehuneko 9 egiten du.

Eskubide bateratuak 252,90 milioi eurokoak izan ziren eta gastu bateratuak, berriz, 229,51 milioi eurokoak. Aurrekontu-erakunde bateratuak 18,74 milioi eurokoak izan zen (2010ean, -28,21 milioi eurokoak izan zen).

Ondoren, Udalaren eta haren erakunde autonomoen betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu.

	2008	2009	2010	2011	2011/10 aldea	2011/08 aldea
Aitortutako eskubideak, guztira	277.546.063	295.286.190	236.615.913	252.903.555	% 6,88	% -8,88
Aitortutako betebeharrak, guztira	255.120.428	284.305.433	270.366.091	229.513.065	% -15,11	% -10,04
Emitza ez-finantzariora	10.374.841	-17.522.518	-29.318.524	14.496.292	% 149,44	% 39,73
Zorpetze-maila	% 3,21	% 3,40	% 3,54	% 4,30		
Zorpetzearen muga	% 6,40	% 9,04	% 7,60	% 10,93		
Zorpetze-ahalmena	% 3,18	% 5,64	% 4,07	% 6,63		
Zorra, guztira	72.257.423	101.155.838	96.669.181	105.555.187	% 9,19	% 46,08
Diru-sarrera arrunten gaineko zorra	% 41,28	% 54,85	% 52,87	% 56,30		
Biztanle bakoitzeko zorra	366	510	489	533	% 9	% 45,63
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	845	859	866	857	% -1,04	% 1,42
Inbertsioaren indizea	423	545	469	265	% -43,50	% -37,35
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera	423	459	425	472	% 11,06	% 11,58

2011n, Udalaren eta haren erakunde autonomoen zorpetze-ahalmena diru-sarrera arrunten ehuneko 6,63koa zen. Zor bateratua 105,55 milioi eurokoa zen –biztanle bakoitzeko 533 euro; 2010ean baino ehuneko bederatzi gehiago—. Horrek diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 56 egiten du.

Biztanle bakoitzeko gastu arruntak 857 eurokoak izan ziren eta biztanle bakoitzeko inbertsioa,

berriz, 265 eurokoa izan zen; 2010ean baino ehuneko 43 gutxiago, hain zuzen.

Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak 472 eurokoak izan ziren; 2010ean baino ehuneko 11 gehiago.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina -3,64 milioi eurokoa izan zen; aurreko ekitaldian, berriz, -21,46 eurokoa izan zen. Honakoei zegokien:

	2010	2011
Udala	-26,05	-8,39
Haur-eskolak	0,26	0,28
Gerentzia	4,34	4,47
Gastu orokorretako diruzaintza-gerakin bateratua	-21,46	-3,64

Horrenbestez, nabarmentzekoak dira Udalaren eta haren erakunde autonomoen zorraren igoera eta inbertsioen gutxitzea, gastu arrunt bateratuen mantentzea eta tributu bidezko diru-sarreraren igoe-

ra. Bestalde, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa da, baina nabarmen hobetu da, -21,46 milioi eurokoa izatetik -3,64 milioi eurokoa izatera pasa baita.

Horrek guztiak aukera eman du likidezia berreskuratzeko, batez ere 2011n itundutako zorren ondorioz, eta diru-sarrera arrunten ehuneko 6,63rainoko zorpetze-ahalmena sortzeko –2010en baino 2,5 puntu gehiago–.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arrisku- en ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzek, efizientziak, eragin-kortasunak eta funts publikoen erabileran garden-tasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

V.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIO-EN BETETZEA

Oraindik aplikatzeke daude 2010eko ekitaldiko fiskalizazioan emandako gomendio nagusiak.

Bete daitezten lehentasunezko zat jotzen dugun honako gomendioak nabarmendu nahi ditugu:

- *Inbertsioak beharrezkoak, bideragarriak eta errentagarriak diren aztertzea, eta lehentasuna ematea jarduera ekonomikoa areagotzea errazten dutenei edo enplegua sortzeko balio dutenei.*

- *Balorazio-ponentzia berraztertzea, besteak beste, azken hirigintza-garapenak egin diren alde- etako lur-eremuen landa-lur gisako kalifikazioa aldatzeko, bai eta planeamenduan eginiko beste aldaketa batzuk gauzatzeko ere.*

- *Barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomiko hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin.*

Azkenik, Udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor gisa, lehentasunezko zat eta presakotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak gara dezala nola aplikatu behar zaizkien Nafarroako toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan jasotako aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak, haien aurrekontuetan, eta, horrenbestez, finantza-egoeran printzipio horiek eragin ditzaketan inplikazio praktikoak direla eta.

VI. FINANTZA EGOERA BATERATUAK

2011ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Bete-takoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Langile-gastuak	1	84.100.800	-8.000	84.092.800	82.340.711	81.771.558	569.153	97,92	35,88
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	76.815.596	40.562	76.856.158	72.002.035	56.854.114	15.147.921	93,68	31,37
Finantza-gastuak	3	4.185.000	8.000	4.193.000	2.591.540	2.588.078	3.462	61,81	1,13
Transferentzia arruntak	4	13.445.707	-40.562	13.405.145	12.665.325	8.598.893	4.066.432	94,48	5,52
Inbertsio errealak	6	71.788.930	24.030.366	95.819.296	46.008.686	37.744.580	8.264.106	48,02	20,05
Kapital-transferentziak	7	9.067.313	149.754	9.217.067	6.351.671	2.562.870	3.788.801	68,91	2,77
Finantza-aktiboak	8	2.457.200	0	2.457.200	2.087.570	2.084.570	3.000	84,96	0,91
Finantza-pasiboak	9	5.486.000	0	5.486.000	5.465.527	5.465.527	0	99,63	2,38
Gastuak, guztira		267.346.546	24.180.120	291.526.666	229.513.065	197.670.190	31.842.875	78,73	100

Dirusarrera-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobrantszek dagoena	Bete-tzearen %	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	49.969.440	0	49.969.440	49.439.875	45.369.905	4.069.970	98,94	19,55
Zeharkako zergak	2	7.000.000	0	7.000.000	13.711.169	10.331.848	3.379.321	195,87	5,42
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	31.152.200	0	31.152.200	30.235.752	25.526.074	4.709.678	97,06	11,96
Transferentzia arruntak	4	94.705.117	0	94.705.117	91.629.561	87.800.578	3.828.983	96,75	36,23
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.747.000	0	2.747.000	2.476.918	2.282.358	194.560	90,17	0,98
Inbertsio errealen besterentzea	6	22.730.190	0	22.730.190	22.426.696	21.724.216	702.480	98,66	8,87
Kapital-transferentziak	7	42.297.913	5.208.595	47.506.508	26.536.289	21.490.902	5.045.387	55,86	10,49
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	18.971.525	21.358.725	2.097.295	1.464.576	632.719	9,82	0,83
Finantza-pasiboak	9	14.357.486	26.054.746	40.412.232	14.350.000	14.350.000	0	35,51	5,67
Diru-sarrerak guztira		267.346.546	50.234.866	317.581.412	252.903.555	230.340.457	22.563.098	79,63	100

Egoera-balantze bateratua, 2011/12/31n (272/1998 Foru Dekretuaren arabera)

Deskribapena	2011ko itxierako zenbatekoa	Deskribapena	2011ko itxierako zenbatekoa
A Ibilgetua	1.141.405.751	A Funts berekiak	1.078.114.311
1 Ibilgetu materiala	521.308.868	1 Ondarea eta erreserbak	669.994.293
2 Ibilgetu ez-materiala	22.264.056	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	35.840.019
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	588.713.255	3 Kapitaleko diru-laguntzak	372.279.999
4 Herri-ondasunak		B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	
5 Finantza-ibilgetua	9.119.572	4 Hornidurak	
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	C Epe luzeko hartzekodunak	105.573.223
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	105.573.223
C Zirkulatuzailea	90.320.853	Epe laburreko hartzekodunak	48.039.070
7 Izakinak	9.407.598	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	47.886.415
8 Zordunak	49.524.126	6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	152.655
9 Finantza-kontuak	31.364.297		
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	24.832		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.231.726.604	Pasiboa, guztira	1.231.726.604

2011 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	236.615.913	252.903.554
Aitortutako betebeharrak garbiak	-270.366.091	-229.513.065
Aurrekontu-emaitza	-33.750.178	23.390.489
Doitzeak		
Finantzaketaren desbideraketa positiboa	-6.575.279	-7.430.683
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	12.115.597	2.782.755
Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak	0	0
Aurrekontu-emaitza doitua	-28.209.860	18.742.562

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2011ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia	Aldaketaren ehunekoak
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	62.356.709	60.862.320	-2,44
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	21.870.978	22.412.508	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	44.363.363	45.033.521	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.563.252	2.213.133	
(+) Ordainketen itzulketak	1.917	20.119	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-6.253.120	-8.664.306	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-189.681	-152.655	
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	-93.129.710	-68.875.818	-26,04
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-55.672.250	-31.842.875	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-30.399.881	-30.064.030	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-6.558.622	-6.742.032	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-505.838	-235.394	
(+) Aplikatzeke dauden ordainketak	6.881	8.513	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	31.032.413	30.119.774	-2,94
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	27.723.092	25.634.282	-7,53
= Diruzaintzako gerakina, guztira	27.982.504	47.740.557	70,61
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	25.578.273	24.733.944	-3,30
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	23.860.764	26.645.814	11,67
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-21.456.534	-3.639.201	83,04

VII. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Idazpuru honetan deskribatzen dira erregular-tasunari buruz eginiko fiskalizazioaren harira lortu-tako ondorio nagusiak, bai eta Udalaren kudeake-ta ekonomikoa hobetzeko gomendioak ere.

VII.1. AURREKONTUA ETA KONTU OROKO- RRA

2011rako aurrekontu orokorra, zeina Udalaren beraren aurrekontuak, erakunde autonomoetakoek eta osoki Udalaren kapitalekoak diren enpresa publikoen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspe-naren egoera-orriek osatzen baitute, Udalaren Osoko Bilkurak 2010eko abenduaren 17an onetsi zuen hasiera batean. Gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspen bateratuek 267.884.525 euro eta 267.929.889 euro egiten zuten, hurrenez hurren.

Ez da lau urteko inbertsio planik egin. Doku-mentazio hori, halakorik izanez gero, aurrekontu orokorraren espedientearen eranskin bat izanen da.

Aurrekontuan ez dira bildu ez Animsa Udalaren enpresa publikoaren jarduketara plana, ez eta haren inbertsioetarako aurreikusi den finantzaketa ere.

2011ko ekitaldiko kontu orokorra 2013ko otsai-laren 22an onetsi zen.

2011ko kontuei dagokienez, erakunde auto-no-moen, haur eskolen eta Hirigintzako Gerentziaren kontuak; Gayarre Antzokiaren eta Erruki Etxearen kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengo-a duen enpresa publikoen kontuak ?Comirruña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A., Animsa eta Mercairuña, S.A.? kanpoko profesio-nalek auditatu dituzte, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman dute.

Gainera, Udalaren menpeko entitate horietan guztietan, salbu eta Comirruña, S.A.n, jarduera ekonomiko finantzarioaren legezkotasuna betetze-ari buruzko auditoria bat egin zen, eta kasu guztie-tan aldeko iritzia eman zen.

Hona gure gomendioak:

- *Lau urteko inbertsio planak egitea, beren finantzaketa programekin batera.*

- *Kontu orokorra onestea legez ezarritako epean.*

VII.2. UDALAREN FINANTZA-EGOERA

Atal honetan Udalaren banakako finantza-ego-era –ez bateratua– aztertuko dugu.

Udalak 2011ko ekitaldirako daukan aurrekontua onetsi zen diru-sarreraren eta gastuen 238.710.946 euroko aurreikuspenekin.

Udal aurrekontuaren aldaketak 1.048.179 euro-koak izan ziren gastuetan, gastuen hasierako kre-dituen ehuneko 0,5; diru-sarreretan, berriz, aurre-kontu aldaketak 27.102.924 eurokoak izan ziren, diru-sarreraren aurreikuspenen ehuneko 11.

2011n aitortutako eskubideak 230,78 milioi eurokoak ziren, behin betiko aurreikuspenen ehu-neko 87 eta aurreko urtean sortutakoak baino ehu-neko zazpi gehiago. Igoera hori zor zaie, batez ere, 22 milioitan lursailak saldu izateari (2010ean, 5 milioi izan ziren), 2011n itundutako 14,35 milioiko maileguari eta EIOZak ehuneko 110 gora egin iza-teari.

Diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 40 Udalak jasotako transferentzia arruntei dagokie; ehuneko 27 zergak dira; ehuneko 12 tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerei dagokie; ehuneko 10 lursai-len besterentzetik heldu da; ehuneko sei 2011n itundutako finantza-pasiboak dira; ehuneko hiru jasotako kapital-transferentzietatik heldu dira, eta gainerakoa ondarezko diru-sarreraren eta aktibo finantzarioen artean banatzen da.

2011ko abenduaren 31n, eskubide guztien ehu-neko 92 kobratuta zeuden.

Udalak 2011n aitortutako betebeharrak 211,18 milioi euro egin zuten, eta behin betiko kredituen ehuneko 88ko exekuzio-maila ageri dute. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gastuek ehuneko 14 egin zuten behera, funtsean inbertsioak ehuneko 51 behera egin izatearen ondorioz.

Gastu guztien ehuneko 36 langileenak dira; ehuneko 33 ondasun arrunt eta zerbitzuei dagoz-kie; ehuneko onartutako 14 transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei dagozkie; ehuneko 13 inbertsioei; ehuneko 3,5 zama finantzarioari, eta gainerakoa aktibo finantzarioei.

2011ko abenduaren 31n, gastuen ehuneko 82 ordainduta zeuden.

Hona Iruñeko Udalaren aurrekontu-adierazle batzuk, 2010. eta 2011. urteetakoak:

Adierazlea	2010	2011	Aldea (%) 2011/10
Diru-sarrera arruntak	179.760.888	184.436.110	3
Funtzionamendu gastuak	166.347.868	164.621.274	-1
Aurrezki gordina	13.413.019	19.814.836	48
Finantza-zama	6.320.263	7.524.443	19
Aurrezki garbia	7.092.756	12.290.393	73
Kapital-gastuak	70.643.955	36.943.097	-48
Kapitaleko diru-sarrerak	33.055.670	29.897.006	-10
Kapitaleko beharrak	37.588.285	7.046.091	-81
Aurrekontu-emaizta doituak	-28.428.895	18.573.003	165
Zorpetze-maila	3,52%	4,08%	
Zorpetze-muga	7,46%	10,74%	
Zorpetze-ahalmena	3,94%	6,66%	
Zor bizia	79.241.256	88.125.729	11
Biztanle bakoitzeko zor bizia	401,25	445,23	11
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-26.054.643	-8.394.471	68

Udalaren 2011ko diru-sarrera arruntak 184,44 milioi euro izan ziren, 2010ean baino ehuneko hiru gehiago, batez ere EIOZari esker; izan ere, zerga horretan ehuneko 110eko igoera izan da, sortza-penaren irizpidearekin kontabilizatu baita, eta ez kutzako irizpidearekin aurreko ekitaldietan bezala. Honakoak nabarmendu behar dira: Nafarroako tributuetan parte hartzeagatiko diru-sarrerak, 52,83 milioi egiten dutenak; hiri-lurraren gaineko kontribuzioa, 26,07 milioi egiten duena; hiriburutza-kontzeptua dela-eta jasotako transferentzia, 22,33 milioiokoa; eta EIOZa, 13,71 milioiokoa.

Funtzionamendu-gastuek 164,62 milioi euro egin zuten, 2010ean baino ehuneko bat gutxiago, zeren eta langile-gastuek eta ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak behera egin baitute (ehuneko bi kapitulu bakoitzean). Horri dagokionez, Udalak, 2011ko bigarren seihilekoan, gastu arruntak doitzeko aurrekontu-neurriak hartu zituen, 7,59 milioi eurokoak.

Udalak 19,81 milioi euroko aurrezki gordina lortu zuen, 2010ekoa baino ehuneko 48 handiagoa, diru-sarrera arruntek gora egin zutelako eta funtzionamendu-gastuek, berriz, behera.

2011n jasandako zama 7,52 milioi eurokoa izan zen (2,06 milioi interesetan eta 5,46 milioi amortizazioan), 2010eko zama finantzarioa baino ehuneko 19 handiagoa. Udalaren zorpetze maila 2011ko abenduaren 31n diru-sarrera arrunten ehuneko 4,08 izan zen, eta haren muga ehuneko 10,74an zegoen. Horrek berarekin ekarri du zorpetze-ahalmena diru-sarrera arrunten ehuneko 6,66koa izatea, 2010ean zegoena baino 2,72 puntu txikiagoa.

Udalaren zor bizia 88,12 milioi eurokoa zen 2011n, ehuneko 11 gehiago 2010ean baino. 2011n, berriz, 14,35 milioi euroko mailegu bat hitzartu zen.

2011n eginiko kapital gastuak 36,94 milioi eurokoak izan ziren, 2011n baino ehuneko 46 txikiagoak; horrenbestez, 2011n jasotako kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 10 behera egin bazuten ere, 2011ko kapitaleko beharrak ehuneko 81 txikiagoak izan ziren 2010ean sortutakoak baino. 2011ko ekitaldian inbertsioen erritmoa nabarmen jaitsi zenez, kapitaleko beharra, 7.046.091 eurokoak, 2011n sortutako aurrezki garbiarekin finantzatu ahal izan ziren, 2010ean ez bezala.

2010ean, 37,59 milioi euroko kapitaleko beharrak sortu ziren, eta horietatik 7,09 milioi aurrezki garbiarekin finantzatu ziren; gainerakoetarako, ez zorpetzearen bidezko zen kanpoko finantziatziora jo. Finantzaketa arloko defizit hori arrastaka eraman zen 2011ko ekitaldira, eta azken horretan 14,35 milioi euroko mailegu bat hitzartu zen.

Horrenbestez, 2011. urtean, eragiketa arrunten araberako nahikotasun finantzarioa zuen, zeren eta 12,29 milioi aurrezki garbia sortu baitzuen, eta bere diru-sarrera arrunten ehuneko 6,66ko zorpetze-ahalmena zuen.

Gainera, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak nabarmen egin zuen hobera, -26 milioi-tik -8 milioira pasaz, funtsean ordaintzeko zeuden betebeharrak 13 milioitan behera egin zutelako, eta diruzaintzak, berriz, 8 milioitan gora egin zuelako. Bilketa zaileko eskubideen dotazioak, aldiz,

2,4 milioi eurotan gora egin zuen. Nabarmentzeko moduko hobekuntza hori gorabehera, Udalak ez du likideziako soberakinik hurrengo ekitaldietako gastuak finantzatzeko, zeren eta gastu orokorretako diruzaintza-gerakina negatiboa baita (--8.394.471 euro).

2012ko abenduaren 21ean Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko abenduaren 31n zegoen gerakin negatiborako aukeratu zuen konponbidea izan zen hura mailegu batez finantzatzea eta, horrenbestez, 2012ko dirusarreraren aurrekontuaren aurreikuspena 8.394.471 eurotan handitzea.

Araubidea	Kopurua
Behin-behineko langileak.	40
Funtzionarioak	1.344
Lan-egunak	40
Guztira	1.424

1.424 lanpostuen ehuneko 22 hutsik zeuden.

Funtzionarioen 1.344 lanpostuetatik 493 Udaltzaingoari zegozkion; 133 lanpostu instalazioetako funtzionamendu-laguntzaileei, eta 52 gizarte langileei.

2011n, ez zen egon lan-eskaintza publikorik.

2011n, 12 lanpostu amortizatu ziren eta zortzi lanpostu berri sortu ziren, plantilla organikoaren kasuko aldaketa izapidetu gabe.

2011n, aldi baterako 737 kontratu formalizatu ziren, 560 pertsonarekin.

- Aparteko lanorduak.

2011n, 737 langilek 42.889 aparteko lanordu egin zituzten, eta horrek 703.611 euroko guztizko

VII.3. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 76,13 milioi eurokoak izan dira 2011n. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guttizkoaren ehuneko 36 egiten dute. Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 98 egin zuen. 2010ean baino ehuneko 2 gutxiago izan ziren, funtsean aldi baterako lan kontratudunen ordainsariekin behera egin zutelako.

Udalaren 2011ko ekitaldiko plantillak 1.424 lanpostu zeuzkan --2010ean, 1.436 lanpostu ziren--. Honakoei zegozkien:

gastua ekarri zuen. Horri gehitu behar zaizkie atsedeen-denborarekin konpentsatutako 12.834 orduak.

Ordaindutako aparteko lanorduen ehuneko 32,58 trafikoko polizia dagozkie.

1992ko abenduko alkatetza-dekretu batez, langile bakoitzeko aparteko lanorduen gehieneko muga ezarri zen, 50 lanordukoa, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

253 dira urtean 50 lanordu baino gehiago egin dituztenak, eta horietatik aparteko lanorduen ehuneko 72 egin dituzte guztira.

Honakoa da aparteko lanorduen bilakaera azken hiru ekitaldietan:

Deskribapena	2009		2010		2011	
	Zenbatekoa	Orduak	Zenbatekoa	Orduak	Zenbatekoa	Orduak
Lanegunetako Aparteko Orduak	295.498	19.784	262.484	17.828	245.672	16.600
Jaiegunetako Aparteko Orduak	136.522	7.022	84.270	4.661	81.162	4.627
Lanegunetako Aparteko Orduak	2.538	283			11.137	818
Jaiegunetako Aparteko Orduak	32.073	1.875			57.389	3.471
Lanegunetako Aparteko Orduak	832	53	1.349	80	265	38
Jaiegunetako Aparteko Orduak	319.816	17.163	286.081	13.286	303.778	17.116
Jaiegunetako aparteko lanorduak. Lan					4.208	220
Aparteko lan orduak, salbuespeneko	208	10				
	787.487	46.190	634.184	35.855	703.611	42.890

Aparteko lanorduegatiko gastuak ehuneko 11 egin zuen gora 2011n, 2010arekin alderatuta, hauteskunde ondoriorik. Beraz, arrazoi horrengatik egindako aparteko lanorduak kenduz gero, gora egite hori soilik ehuneko 0,1ekoa izan zen.

2011n 2010ean baino lanordu gehiago egin ziren, ehuneko 20 gehiago hain zuzen. Portzentaje hori ehuneko 7,7raino jaisten da hauteskundeengatik egindako aparteko lanorduak kenduz gero.

Orokorrean, ez dago jasota enplegatutako bakoitzari alde aurretik baimena eman izatea aparteko orduak egiteko. Arlo bakoitzeko zuzendariaren baimen orokor bat ageri da, sortutako aparteko lanorduak ordaintzeko, bai eta enplegatuaren nagusiaren onospena ere, langileak hilabete bakoitzean egindako lanorduei buruzkoa.

Hona gure gomendioak:

- Lanpostu-sorkuntza eta amortizazioa izapidetzea plantilla organikoa aldatuz, legez ezarritako onspen- eta publizitate-betekizunak betez.

- Aparteko lanorduak baimentzea haiek egin baino lehen; eta lanordu horiek urteko 50eko muga gainditzen badute kontrolatzea salbuespeneko arrazoiengatik, arrazoi bereziengatik edo presako arrazoiengatik egin direla, eta arrazoi horiek behar bezala justifikatu direla.

- Berriz ere gomendatzen dugu aurreko ekitaldietako "Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun" eta " Funtzionarioen arreta" kontuetako saldoak erregularizatzeko.

VII.4. UDALAREN ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Udalaren 2011ko ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 69,01 milioi eurokoak izan ziren; 2010ean baino ehuneko bi gutxiago, hain zuzen. 2011n aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 33 egiten dute. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 94 egin zuen.

Ondokoak dira kapitulu horrek biltzen dituen gastu-kontzeptu nagusiak:

Kontzeptua	Gastua, 2010	Gastua, 2011	Aldaketa, ehunekotan	Kapitulua gaineko %
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	9.671.521	9.949.123	3	14
Erabilera publikoko ondasunen mantentzea eta konponketa	6.406.466	6.387.581	-0,29	9
Jarduera sozialen kudeaketa	6.386.810	6.214.526	-3	9
MUGAren kudeaketa-kontratuak	5.368.532	5.703.000	6	8
Kultur jardueren kudeaketa	4.308.811	4.417.975	3	6
Garbiketa-kontratuak	4.176.040	4.331.378	4	6
Azterlanak eta lan teknikoak	5.175.985	4.326.817	-16	6
Argiteria publikoaren kontsumoa.	2.721.131	2.421.968	-11	4

Hona fiskalizatutako gastuen eta kontratuen lagina:

- Gastuak.

Kontzeptua	Gastua, 2011
Civivoxaren kudeaketa	2.646.628
Ikastetxeen garbiketa	2.524.204
Argiteria publikoa eta semaforoak	2.274.800
Hautzarorako programa	1.131.724
Diru-bilketa exekutiboa	965.471
Hiri altzarien mantentzea eta konponketa	708.437
Etkez etzeko laguntza zerbitzua: pertsonen elikadura.	638.133
Etkez etzeko laguntza zerbitzua: garraioa, elikadura, arropa eta material teknikoa	417.438
Iruña Gaztea Plana	238.540

- 2011n adjudikatutako kontratuak.

Kontratua	Xedea	Prozedura	Irizpidea	Zenbat lizitatzailerik	Lizitazio-prezioa	Adjudikazioaren prezioa
Hornidura	Argiteria publikoa eta semaforoak	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	Eskaintzarik onena	1	8.610.169	5.632.881
Zerbitzu-emakidak	Civivoxaren eta San Juan Bosco zentroaren kudeaketa	Irekia	Eskaintzarik onena	3	8.460.870	8.266.270
Laguntza	Elikagaiak prestatzea eta hornitzea etxez etxeko laguntza zerbitzurako	Irekia, Europar Batasunean publikizitatea eginda	Eskaintzarik onena	7	560.000	541.655
Laguntza	Udako kanpaina	Irekia	Eskaintzarik onena	7	153.204	143.216
Laguntza	Autobus geltoki zaharraren garbiketara	Negoziatua, Europar Batasunean publikizatzerik egin gabe		3	43.040	42.750

Orokorrean, kontratazio-espedituen izapidez, haien adjudikazioa eta haien betetzea kontratuen arloan aplikatzekoa den legediaren arabera egin ziren.

Halaber, gastuak justifikatuta, onetsita, kontuhartzaitzak onartuta (aurreko kontuhartzaitza mugatua), zuzen kontabilizatuta eta 30 eguneko epean ordainduta daude, epe hori dela-eta aipagarriak ez diren salbuespen batzuekin. Halaber, aztertutako laginean egiaztatu da ezen, orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu direla kontratatutako zerbitzua baldintza-orri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera betetzen dela kontrolatzeko.

Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Haurtzarorako programa. Haurtzarora sustatzeko, artatzeko eta babesteko jarduerak sortutako gastuak biltzen ditu.

Iruñeko bost auzotan bost entitatekin kontratatutako lehen mailako prebentzio zerbitzua aztertu zen. Kontratuak 2006an adjudikatu ziren, guztira 352.500 euro ordainduta. 2011ko gastua 482.600 eurokoa izan zen. Ekitaldi horretan, kontratua ehuneko 21 aldatu zen.

2011ko kontratu-aldaketa aplikatzekoa den legediaren arabera izapidetu zen. Hala eta guztiz ere, ez dago jasota aldaketa horren arrazoia izan zen lan-handitzearen justifikazioa.

2011ko irailaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrek erabaki zuen kontratuak amaiaraztea eta haiek 2011ko abenduaren 31n azkentzea. Horren xedea zen haiek aztertzea baliabide publikoak optimizatzeari begira eta aurrekontu-egonkortasun

naren helburua lortze aldera. Sei egun geroago, Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarra premiatzea amaiarazitako kontratuak luza zitzaizkien. Kontratu horiek 2012ko ekainaren 30era arte luzatu ziren, ordura arte zeuzkaten baldintza beretan. Ez dago jasota horrek aurrekontu-egonkortasunean nolako eraginak izan zituzten, nahiz eta horixe izan haiek amaiarazteko arrazoia.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzurako elikagaiak prestatu eta hornitzeko kontratua 2011ko abuztuan adjudikatu zen, 541.655 euroko gehieneko prezio batean.

2011ko gastuak 20.904 euroan gaintu zuen 2011ko irailetik abendurako aldirako onetsita zegoen kreditu hitzartua. Igoera hori izapidetu zen data bereko 10.000 euroko eta 10.904 euroko bi fakturaren bitartez, eta izapidetze modu horren arrazoia izan zen haien zenbatekoa zela-eta soilik faktura eta kreditu-erreserba eska zitezkeela. Bi faktura horietan ez dira ez zehazten, ez azaltzen emandako zerbitzuak, ez eta aplikatutako prezio unitarioak ere.

- 2011n, etxez etxeko laguntza zerbitzurako garraio- eta arropa-kontratua aldatu zen, eta 43.580 ale eta 112.000 euro gehiago ezarri ziren. Horren justifikazioa da 2011ko urtarriletik apirilera emandako zerbitzuak ehuneko 39 handiagoak izan zirela aurreko urteko epe berean emandakoa baino. Handitze horren arrazoia da 2011ko urtarriletik apirilera 14.891 zerbitzu kontabilizatu zirela, 2010eko abuztutik abendura bitarteko hilabetei zegozkienak. Hori dela eta, kontratu-aldaketa ez zen bidezkoa, 2010eko gastuak 2011ko kontabilitatean oker egotean oinarritua baitzegoen.

- Ikastetxeen garbiketa. Enpresa adjudikazio-hartzaileetako batek 23.313 euro fakturatu zituen ikastetxe berri baten garbiketa orokorrarengatik. Garbiketa hori ez zegoen adjudikatutako kontratuan sartuta. Gastu hori 8.771 euroko hiru fakturaren bitartez izapidetu zen. Horretarako kasuko kreditu-erreserba onetsi zen.

- Antzinako autobus geltokirako garbiketa-kontratua –haurrentzako josteta eta aisiako jarduketarako erabiltzen den eremua da– 2011ko ekainaren 30ean amaitu zen, baina adjudikazio-hartzaileak prestazioarekin jarraitu zuen 2011ko azaroaren 23ra arte, zeren eta ez baitzen beste adjudikaziorik egin. Egoera hori aparteko kasu gisa jasota dago kontratua arautzen duen baldintza administratiboen orrian.

- Argiteria publikorako eta semaforoetarako energia elektrikoaren kontratua kalkulaturikoa baino merkeago adjudikatu zen; hain zuzen ere ehuneko 35 merkeago. Ez dago jasota eskaintza anormalki baxu horren onarpena arrazoitu zenik.

Kontratu hori beherantz aldatu zen, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen eragine-tarako. Ez dago jasota txosten juridikorik, nahiz eta kontratuaren hasierako izapidetzean hura eskatu zen. Kontratuei buruzko Foru legeak ez du aldaketa-proposamenari buruzko txosten juridikorik exijitzen. Alabaina, hasierako kontratuaren izapidetzean txosten hori nahitaezkoa bada, nahitaezkoa izan beharko du, halaber, izapidetzen den aldaketa orotan.

Adjudikazio-hartzaileak fakturak aurkezterakoan izandako atzerapenarengatik eta haietan izandako akatsengatik –hornitzaileengan izandako aldaketen ondorioz–, lehenengo sei hilekoaren betebeharren kontabilizatzea –2,79 milioi euro– 2011ko abenduaren 31ra arte atzeratu zen, eta bigarren sei hilekoari zegozkionak –1,09 milioi euro–, berriz, 2012ko irailean onetsi ziren.

Hona gure gomendioak:

- *Hautzarorako programari dagokionez eta, oro har, zerbitzu guztietan, haien berrantolatzea ebaluatzea, prestazioan efizientzia handiagoa lortze aldera.*

- *Kontratazio espedienteen izapidetzea hastea behar den denborarekin, segurtatze aldera kontratu hori aurreko kontratua amaitu baino lehenago adjudikatuta egonen dela.*

- *Kontratu-aldaketen beharra justifikatzea.*

VII.5. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalaren 2011ko inbertsioek 26,85 milioi euro egiten dute, 2010ean baino ehuneko 51 gutxiago. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 13 da. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 65 egin zuen.

Honako inbertsioak fiskalizatu dira:

- 2011n adjudikatutako inbertsioak

Kontzeptua	Zenbat lizitatzaile	Lizitazio-preziora	Adjudikazioko preziora	Adjudikazioko baja	Gastua, 2011
Tafalla kaleko urbanizazioa eta sareak	6	4.294.887	2.533.983	% 41	1.636.559
Pio XII.eko argiteria publikoa	13	1.049.778	709.279	% 32,4	746.562
Hilerrietako sareak eta zoruak	9	970.668	679.468	% 30	679.190
Sanduzelaiko futbol zelaiko aldagelak	13	589.662	471.730	% 20	470.614
Kulturaren plan estrategikoa	11	59.000	59.000		48.552

- Bestelako inbertsioak.

Kontzeptua	Gastua, 2011
Arrosadia-Lezkairuko lursailak urbanizatzea	3.564.102
Santa Isabelen harresia	3.025.286
Etxabea erostea	1.484.000
Sanferminetako zentro tematikoa.	724.687
Semaforoak jartzea	299.995
Bi ibilgailu alokatzea	12.272

Oro har, kontratazio espedientearen izapidetzean eta adjudikazioan eta obrak egiterakoan kontratuei buruzko legedia bete zen, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta (aurreko kontu-hartzaitza mugatua), justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta 60 eguneko epean ordainduta daude, epe hori dela-eta aipagarriak ez diren salbuespen batzuekin.

Nabarmentzekoa da bajak zenbateko ehuneko egiten duen lizitazio prezioaren gainean, obra jakin batzuen adjudikazioan. Portzentaje horiek ehuneko 32,4koa –argiteria publikoaren inbertsioan– eta ehuneko 41ekoa –Tafalla kalea urbanizatzeko eta sareak jartzeko obretan– izan dira, esate baterako. Kasu horietan, Udalak adjudikazio-hartzaileari exijitu zion ustez ausartegia zen eskaintzaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa justifikatzeko.

- Etxabe bat erostea.

1.484.000 euroko gastua 2011n ordaindutako zenbateko bati zegokion. Horren bidez, 1.368 metro koadro erabilgarriduneko merkataritza-etxabe baten erosketa gauzatu zen. Udalak 2.968.000 euroko prezio tasatuan erosi zuen etxabe hori (2.568.000 euro etxabearengatik eta 400.000 euro jarduera uztearen ondoriozko kalte-ordainarengatik).

tik). Zenbatekoaren guztizkoa 2011tik 2013ra ordainduko da. Udalak 2013an jasoko du etxabea, behin hitzartutako prezioaren guztizkoa ordaindu ondoren.

Etxabea erosteko arrazoia izan zen antolamendutik kanpo zegoela eta ezinbestekoa zela etxemultzo bateko hirigintza-aurreikuspenak garatzeko, zeren eta eragozten baitzuen lehendik libre zeuden bi eremu batzea. Horrenbestez, hirigintza-planeamenduan hura eraistea aurreikusi da.

- Kulturaren plan estrategikoa.

Planaren prestaketa 59.000 euroko prezioan adjudikatu zen, 2011ko abenduaren 31ra bitarteko betetze-epearekin. 2011ko abenduaren 31n, kontratuaren ehuneko 50 beteta zegoen, eta 29.500 euro ordainduta zeuden. Gastu horrezaz gainera, 11.152 euro ordaindu ziren inprimaketarengatik eta maketazioarengatik; 2.000 euro zuzendaritza exekutiboarengatik; eta 5.900 euro laguntza teknikoarengatik. Guztira, 48.552 euro ordaindu ziren.

Kontratua 2011ko azaroaren 27an amaitu zen.

- Sanferminetako zentro tematikoa.

Zentroko erakusketa-edukiak ezartzeko kontratua 2009ko azaroan adjudikatu zen, 6.560.241 euroko prezioan. Hona kontratu hori nola bete den:

	Kontratua	Gastua
Oinarrizko proiektua	646.000	(2010) 646.000
Gauzatzeko proiektua	985.707	(2010) 985.707
Ekoizpena	2.299.983	(2011) 696.847
Ezarri eta martxan jartzea	2.628.551	
Guztira	6.560.241	2.328.554

2011ko abenduaren 31n, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen kontratua urtebetez etetea, 2012ko abenduaren 31ra arte, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako finantziarioa falta zelako. Enpresa adjudikazio-hartzaileak ordura arte betetako lana entregatu zuen, 696.847 euroan baloratua.

Guztira, Udalak 3,7 milioi euro inbertitu ditu (1,37 milioi obra-proiektuetan eta 2,33 milioi erakusketa-edukietan) proiektuan. Proiektu horren ehuneko 80 Nafarroako Gobernuak finantzatu du. Alabaina, proiektuaren jarraitutasuna ez dago segurtatua.

Hona gure gomendioak:

- *Inbertsio plan bat egitea, non aztertuko baita inbertsioak beharrezkoak diren, bideragarriak diren, produktiboak diren eta ekonomikoki eta sozialki errentagarriak diren.*

- *Lizitazio prezioaz nabarmen behera adjudikatutako inbertsioen jarraipena egiten segitzea, segurtatze aldera haiek egiterakoan irizpide teknikoak, kalitatekoak eta epeari dagozkionak betetzen direla, besteak beste.*

VII.6. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATI-KO GASTUAK

Honakoak izan ziren Udalak 2011n egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak:

Entea	Arruntak		Kapitalekoak	
	Gastua	Aldea (%) 2011/10	Gastua	Aldea (%) 2011/10
Erakunde autonomoak	6.808.901	11	3.741.306	-35
Udal sozietateak	4.168.772	13	1.274.754	-29
Foru Komunitatea	294.346	-24	0	
Mankomunitatea	383.505		1.406.791	-64
Enpresa pribatuak	139.806	-30	676.008	3
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	7.678.895	-5	2.994.119	-24
Guztira	19.474.225	5%	10.092.978	-37

Transferentzia arruntak 19,47 milioi eurokoak izan ziren, eta 2011ko gastu guztien ehuneko 9 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko bost egin zuten gora, batez ere Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari eta pertsonak artatzeko udal enpresari eginiko ekarpenek gora egin zutelako eta Iruñerriko Mankomunitateari garraiorako 383.505 euro transferitu zitzaizkiolako.

Kapital-transferentziak 10,09 milioi eurokoak izan ziren. Udalak 2011n eginiko gastu guztien

ehuneko 5 dira. Behin betiko kredituen ehuneko 69ko betetze-maila egiten dute.

2011ko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, betetze-oinarrietan zehaztutakoak, 3.170.940 eurokoak izan eta 65 onuradun zeuzkaten.

Iruñeko Udalak emandako diru-laguntzak kasu ordenantzetan araututa daude, Udaleko Osoko Bilkurak onetsitakoetan, bai eta aurrekontua betetzeko oinarrietan ere.

Honako transferentzia eta diru-laguntzak fiskalizatu dira:

Kontusaila	Onuraduna	Gastua, 2011	Aldea (%) 2011/10
<i>Transferentzia arruntak</i>			
Animsa		1.973.527	-3
Asimec, S.A.		1.733.700	37
Hiri Garraiorako Mankomunitatea		383.505	
Pamplona Centro Histórico: kirol instalazioak		130.475	301
AEDONaren aldeko diru-laguntza izenduna		200.000	
<i>Kapital-transferentziak</i>			
Mankomunitatea: hondakinen bilketa pneumatikoa		1.406.791	-64
Animsa		650.000	-43
Pamplona Centro Histórico: etxebizitza eta zaharberritzea		600.000	
Merkataritza. Enpresa pribatuak		676.008	12
Artzapezpikutzarentzako diru-laguntza izenduna. Fatxada zaharberritzea.		200.000	
Etxabakoitz Kirol eta Kultur Elkarterako obrak egiteko diru-laguntza izenduna		100.000	

Oro har, transferentziak eta diru-laguntzak onetsita, fiskalizatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude.

Diru-laguntza izendunak itunen bitartez gauzatu dira.

- Animsa.

2010ean, Animsa sozietate publikoarekiko harremanaren aldaketa formala erabaki zen, eta jo zen Udalak sozietateak egiten duen jardueraren gaineko tutoretza finantzarioa egiten duela. Hartara, Udalak Animsari, bere funtzionamendurako eginiko ekarpena transferentzia arrunt gisa kontabilizatzen du. Kapital-transferentzia gisa kontabilizatzen du, aldiz, sozietate publiko horrek garatzen dituen proiektu informatikoei baldin badagokie.

Alabaina, Animsak Udalari jasanarazten dio Udaletik, bere funtzionamendu-gastuak finantzatzeko, jasotzen dituen transferentzia arrunten BEZa.

Kapital-transferentzietan dagokienez, Udalak aurrekontuan aurreikusitako ekarpenaren guztizkoa aurreratzen dio Animsari. Jokamolde horrek eragiten du diru-zenbateko handiak aurreratu behar izatea, eta, gainera, zenbateko horiek, azkenean, enpresa publikoak justifikatutako gastuak baino dezente handiagoak izatea: 405.445 euro 2010ean eta 157.151 euro 2011n. Halere, kopuru horiek hurrengo ekitaldian konpentsatzen dira, Animsak eginiko proiektuak justifikatzen dituen heinean.

Egiaztatu dugu ahulgune batzuk badaudela Udalak Animsa sozietatearen gainean egiten duen kontrolean. Hala eta guztiz ere, konprobatu dugu

sozietate publikoak Udalari aurkeztzen dizkion gastuak justifikatuta daudela.

- Pamplona Centro Histórico.

Pamplona Centro Historiko Udal sozietateari eginiko 130.475 euroko transferentzia ematen da Aquavoxaren kudeaketa finantzatzeko. Zenbateko hori instalazio horiek kudeatzen dituen kanpoko adjudikazio-hartzaileari ordaindutako gastuari dagokio, enpresa horrek ordaindutako 20.000 euroko kanona kenduta.

Hona gure gomendioak:

- *Enpresa publikoek emandako zerbitzuen gainean Udalak egiten duen kontrola areagotzea, zerbitzu horiek, aurkeztutako justifikazioaren arabera, diru-laguntza bidez finantzatu direnean.*

- *Animsa enpresari ordaintzea emandako zerbitzuen justifikazioa aurkeztu duen neurrian; hori ez da eragozpena izanen ekitaldirako aurreikusitako ekarpenaren zati bat kontura ordaintzeko.*

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, non helburuak, aurreikusitako kostuak eta finantzabideak jasoko baitira.*

VII.7. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA UDALAREN BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Honakoak izan ziren zuzeneko zergen, zeharkako zergen, tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren kapituluetan 2011n aitortutako esku-bideak:

Kapitulu ekonomikoa	Zenbatekoa	Betetakoa (%)	2010/11 aldea
1. Zerga zuzenak	49,44	99	% -3
2. Zeharkako zergak	13,71	196	% 110
3- Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	27,45	97	% 15

2010eko urrian egindako Osoko Bilkuran, erabaki zen 2011rako zerga-tipoak, tasak eta prezio publikoak izoztea.

Zenbateko handiena egiten duten aitortutako eskubideak honakoei dagozkie: hiri-kontribuzioa

–26,07 milioi–, EIOZa –13,71 milioi–, jarduera ekonomikoen gaineko zerga –9,38 milioi–, zirkulaziozerga –9,19 milioi– eta MUGA –7,34 milioi–.

Ondoren nabarmentzen ditugu hurrengo diru-sarreraren fiskalizazioan lortutako ondorioak:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Guztizko jard. 2010/11
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	9.381.794	% 12
Bingo-sarien gaineko zerga	1.144.853	% -5
EIOZa	13.711.169	% 110
Isunak eta zehapenak	4.260.725	% 69
Obren lizentziak	1.238.800	% 167
Antzeko tasa eta diru-sarrerak	1.186.817	% 1.075
Udalaren kirol instalazioak eta lokalak	1.038.737	% 12
Adinekoei laguntzeko zerbitzuak	962.294	% 5
Establezimenduen jardute- eta irekitze-lizentzia	820.241	% 48
Itxitako aurrekontuetako itzulketak	284.747	% 168

- Tributu eta prezio publikoen lagin batean egi-aztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla.

- Tasa eta prezio publikoen tarifak, funtsean, 2002an egindako kostu-azterlan batean oinarrituta daude. Azterlan hori jardueretan oinarritutako kostu-metodologia batekin egin zen.

Zerbitzu berri bat ezartzen denean, haren kos-tuen gaineko azterlan bat egiten da, dagokion tasa edo prezio publikoa ezartzeko. 2011n, lau zerbitzu berri ezarri ziren: ganadu-azoka, Udal jantoki sozi-ala, tresnadun ikasgelaren lagapena eta Civivox antzoki-sarearen kudeaketa.

Oro har, ezarritako prezio publikoek ez dute finantzatzen, bere osotasunean, emandako zerbi-tzuaren kostua.

- Balorazio-ponentziaren azken berrikuspena 1998ko abenduan onetsi zen. Berrikuspenerako legez ezarritako bost urteko epea gainditu egin da, beraz. PONENTZIAK ez ditu jasotzen planeamendu-an egindako aldaketak, eta horrek, besteak beste, berarekin dakar lursailen balio-gehikuntzaren gai-neko zergaren kuotak gutxitzea, lurzoruak ponent-zian landa-lurzorutzat kalifikatutako lur-eremuetan egin diren azken hirigintza-garapenetako (Arrotxa-pea berria, Ezkaba, Buztintxuri, Lezkairu eta abar) higiezinetan daukan eragina dela eta.

2012ko martxoan, Tokiko Gobernu Batzarrak balorazio-ponentzia baten proiektua egitea adjudika-tu zuen, urteko 44.999 euroko zenbatekoan. Proiektu hori bost hilabeteko epean egin behar zen.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren han-ditzea ehuneko 12koa izan da 2010eko ekitaldiare-kin alderatuta, eta horren arrazoia honakoa da: 2011n 1.046.061 euroko diru-sarrerak kontabilizatu dira 2010eko eta 2011ko urteetan izandako zerga-

salbuespenak direla-eta Nafarroako Gobernuak emandako konpentsazioengatik. Kopuru horretatik, 361.017 euro kobratuta zeuden 2011ko ekitaldiaren itxieran.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketan zenbait arazo sortu dira 2011n, hona-koak direla eta: aldatutako ordainagirien jarraipe-na, zerga-salbuespenen kontabilizatzea eta jardu-era ekonomikoen erregistroa. Arazo horiek 2010ean ezarritako aplikazio informatikoaren ope-ratibotasunetik heldu dira.

- Udalak EIOZaren behin betiko likidazioa egi-ten du, obraren amaierako kostuaren arabera, subjektu pasiboak aurkeztutako fakturretan oinarrituz. Zerga kudeatzen duen alorrak ez ditu beti egindako obra baloratzeko behar diren langile tek-nikariak.

- Bingoaren gaineko zergan, jokia antolatzen duen enpresak, zergaren atxikitzailea den aldetik, hilabete bakoitzaren lehenengo hamar egunetan, behar den aitorpen-likidazioa aurkeztu beharra dauka. Iruñean dauden bi enpresetatik, batek ez ditu zerga-betebeharrak betetzen. Udalak premia-menduaren bidetik kobratzen du bere zorra, eta behar diren zehapen-espeditenteak izapidetu ditu. Enpresa horri 820.000 euroko zorra dagokio guzti-ra. 2010ean, 87.124 euroko zehapena ezarri zitzaio-n, baina Udalaren aurrekontuan 52.275 euro bai-zik ez dira aitortu.

- Bestelako tasen eta antzekoen kontzeptuan, prorrata sistemaren bidez kalkulatu den jasandako BEZa erregistratzen da. BEZ hori aurrekontu-gastu gisa kontabilizatzen da aurrez. 2011rako kalkulatu den prorrataren portzentajea ehuneko bederatzi-koa izan zen –2010ean ehuneko batekoa izan zen–, eta horrek azaltzen du zergatik kontzeptu horrek ehuneko 1.075 egin duen gora 2010ean.

- 2011ko ekitaldian, isunen, EIOZaren eta plus-balioen gaineko zergaren bidez lortutako diru-

sarrerak, aurreko ekitaldietan kutxa-irizpidearen arabera erregistratzen zirenak, sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatu ziren. Aldaketa horrek berarekin ekarri zuen diru-sarretan sei milioiko zenbatekoa aitortzea. Zenbateko hori, nagusiki, honakoei dagokie: EIOZa (3 milioi) eta isunak eta zehapenak (2,23 milioi). EIOZak ehuneko 110 eta isun eta zehapenek ehuneko 69 gora egitearen arrazoia da, nagusiki, kontabilitate-irizpidea aldatu dela. Inguruabar hori 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren oroitidazkian jaso da.

Hona gure gomendioak:

- *Emandako zerbitzu edo jardueraren egiazko kostua edo aurreikusitako kostua, oro har, finantzatuko duten prezio publikoak ezartzea.*

Kontzeptua	Zenbatekoa
Lursailak	21.720.478
Ur Mankomunitatea	702.254
Etxebizitzak eta negozioetarako etxabeak	3.963

Lehiaketa publiko bidezko lau lursailen salmenta aztertu dugu. 20,84 milioi euroan egin zen salmenta hori, BEZik gabe. Lursailak Lezkairun daude, eta etxebizitza babestuak sustatzeko dira. Besterentzea hirigintza-legediaren eta aplikatzen den ondasunen gaineko araudiaren arabera izapidetu da.

Lursailen salmentaren bidezko diru-sarrerak, gastu zehatzei aplikatu gabekoak, 18,48 milioi eurokoak izan ziren, eta baliabide atxikiengatik diruzaintza-gerakintzat jo dira.

Mankomunitatetik heldutako diru-sarrerak sareak berritzeko obrei dagozkie. Udalak kontratatu eta ordaindu dituen lanak dira. Udalak Mankomunitateari fakturatzeko dizkio lan horiek, behin amaitu eta ondoren.

VII.9. IRUÑEKO UDALAREN HAUR-ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA

Udalaren Haur-eskoletarako 2011ko ekitaldirako aurrekontua onetsi zen diru-sarriren eta gastuen 8.392.900 euroko aurreikuspenekin. Aitortutako eskubideak 7.748.966 eurokoak izan ziren eta gastuak, berriz, 7.754.612 eurokoak. Diru-sarriren nahiz gastuen betetzea aurreikuspenen ehuneko 92koa izan zen.

Diru-sarrera guztietatik, ehuneko 72 Udalak haur-eskolen funtzionamendua finantzatzeko egindako transferentziari dagokio; ehuneko 27 erakunde autonomo horrek emandako zerbitzuengatik

- *Obren kostua baloratzeko, beste Udal alor batzuetako teknikariekin lankidetzan jarduteko tresnak ezartzea, EIOZaren behin betiko likidazioa egite aldera.*

VII.8. UDALAREN INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

2011n, Udalak inbertsio errealeen besterentzearen ondorioz izandako diru-sarrerak 22,43 milioi eurokoak izan ziren. Aurreikuspenen ehuneko 99 bete ziren, eta 2011ko ekitaldian aitortutako diru-sarrera guztien ehuneko 10 egiten dute. Aurreko ekitaldian sortutakoak baino ehuneko 340 gehiago izan ziren, lursailak 21,72 milioi euroko kostuan saldu baitziren –2010ean, aldiz, 0,9 milioi euro eskuratu ziren bide horretatik–.

prezio publikoei dagokie, eta gainerako ehuneko bata Udaletik jasotako kapital-transferentzietan eta ondare bidezko diru-sarriari dagokie.

Gastuetatik ehuneko 63 langile-gastuak dira; ehuneko 36 ondasuna arruntei eta zerbitzuei dagokie eta gainerako ehuneko bata inbertsioei dagokie.

Haur-eskolen 2011ko ekitaldiko kontuak profesional independenteek ikuskatu dituzte, eta kontu horiek direla-eta aldeko iritzia eman zuten, bai egoera-orri finantzarioei dagokienez, bai finantza-jardueraren legezotasunaren betetzeari dagokienez.

Ganbera honek haur-eskoletako langile-gastuak fiskalizatu ditu. Ondoren azaltzen ditugu fiskalizazio horretatik lortu diren ondorioak.

2011ko langile-gastuak 4.887.275 eurokoak izan ziren –2010ean baino ehuneko 0,3 gutxiago–, eta haien betetze-maila hasierako kredituaren ehuneko 94koa izan zen.

2011rako plantilla organikoak 133 lanpostu jasotzen ditu. Haien ehuneko 62 hezitzaileei dagokie. 45 lanpostu huts badaude, guztizkoaren ehuneko 34, eta horietatik 40 lan-kontratadun langileekin beteta daude. Kontratazio horiek merezimendu eta gaitasun printzipioen betetzea bermatzen duten prozeduren bitartez egin dira.

Gainera, 2011n, 73 pertsona kontratatu ziren ordeko lanak egiteko. Haur-eskoletan, langile

guztien lanera ez-joateak ordezen dira: gaixotasun-bajak, ordainpeko baimenak eta ordaindu gabeko baimenak. Ordezte horien kudeaketak lan handia eragiten du. Kontratazioak zerrenda baten arabera egiten dira. Egiaztatu dugu kontratatutako pertsonak zerrendetan bazeudela, baina ez da jasota uzten zein prozedura jarraitzen den haiek kontratatzeko.

Sei langileren langile-gastuen lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugu bai ordaindutako lansariak, bai egindako atxikipenak zuzenak direla. Hala eta guztiz ere, langileei buruzko espedienteek ez dituzten jasotzen kasuan kasuko langilearen inguruabar eta harekiko emandako administrazio egin-tza guztiak.

Hona gure gomendioak:

- *Langileei buruzko espedienteak osatzea, kasuan kasuko langilearen inguruabar pertsonalak eta harekiko emandako administrazio egintzak jaso ditzaten.*

- *Langileen zerrenden bidez eginiko ordeztetarako aldi baterako kontratazioak jasota uztea, eta horretarako prozedura batzuk ezartzea, beharrezan arintasunez asetzeko modua egon dadin eta, aldi berean, pertsona batek zerrendan betetzen duen tokia errespeta dadila berma dadin.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, M^a Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Esako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Esako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Esako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (43. or.).
- II. Helburua (44. or.).
- III. Norainokoa (45. or.).
- IV. 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (45. or.).

IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (45. or.).

IV.2. Legezketasuna (45. or.).

IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (46. or.).

V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (47. or.).

V.1. 2011ko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera-orria (48. or.).

V.2. 2011ko aurrekontu-emaizta (49. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina, 2011ko abenduaren 31n (49. or.).

V.4. 2011ko abenduaren 31ko balantzea (50. or.).

V.5. 2011ko emaitza ekonomikoa (51. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (52. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (52. or.).

VI.2. Aurrekontuetako gastuak (52. or.).

VI.3. Zergen eta tasen bidezko diru-sarrerak (53. or.).

VI.4. Ezustekoengatiko diru-sarrerak (55. or.).

VI.5. Balantzea eta emaitzen kontua (59. or.).

VI.6. Hirigintza (59. or.).

VI.7. Sociedad Urbanística Municipal de Yesa SL (60. or.).

VII. Yesa Fundazioa (61. or.).

Esako Udaleko Alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (62. or.).

Toki administrazioko zuzendari nagusiak Esako Udalari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (62. or.).

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Esako udalari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (64. or.).

Ahokularitza enpresa batek Esako Udalari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (64. or.).


Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (65. or.).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz eta Udalaren Osoko Bilkurak aurrez eskatuta, Kontuen Ganberak Esako Udalaren 2011ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

2011ko urtarrilaren 1eko populazioa 245 biztanlekoa da eta udalerriak 22,2 km² dauzka; horietatik, 16 km² inguru basoa eta larreak dira.

Udalaren sektore publikoaren osaera honako irudian ageri dena da:



2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

• Administrazioaren sektore publikoa. Ondoren, Udalaren adierazle nagusiak erakusten ditugu (zenbatekoak eurotan emanda daude):

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2011-12-
Udala	313.320,58	334.744,17	3

• Sociedad Urbanística Municipal de Yesa SL. Udalak 2008ko abuztuan eratu zuen udal hirigintza-sozietate hori, eta haren bazkide bakarra da, 4.000 euroko ekarpenarekin. Sozietatea ez dago merkataritza-erregistroan izena emanda, eta eratu

zenetik ez du inongo jarduerarik izan. Haren gastu eta diru-sarrerak bere kontu korrontearen errentagarritasunari eta mantentzeari dagozkionak dira, hurrengo taulan erakusten den bezala (eurotan):

Enpresa publikoa	Diru-	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2011-12-
Sociedad Urbanística	0,36	40,12	-39,76	0

Sozietateak udaletxean du beren egoitza sozila.

Udala Mankomunitatean sarturik dago. Mankomunitate horren bidez, honako zerbitzuak ematen dira: goi-presioko uraren hornidura, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta oinarrizko gizarte zerbitzuak.

Halaber, hurrengoetan sartuta dago:

- "Xabierren Lurrak" Turismo Partzuergoa, eskualdeko sustapen turistikorako.

- Esa Fundazioa, Esako urtegiko handitzearen eragin-eremuaren sustapen sozioekonomikorako. Fundazio hori Nafarroako Gobernuak sortu zuen, eta Esako udaletxean du egoitza.

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuari buruzkoa.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitate bakunari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren 2011ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta bosgarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuen laburpena jaso dugu. Seigarren atalean, Udalaren eta haren sozietatearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo. Azkenik, zazpigarrenean, Esa Fundazioaren funtzionamendua eta garatutako jardueraz aztertzen da.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Udalaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Esako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Esako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Zenbateraino bete duten Udalak 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

Txostena osatzeko, azterketa bat egiten da Esa Fundazioak garatutako jarduerari buruz.

Zehaztu beharra dago ezen txosten hau idazteko garaian, fiskalizatutako ekitaldiko, alegia, 2011ko ekitaldiko Udalaren kontu orokorra Osoko

Bilkurak onetsi gabe dagoela. Egoera berean daude 2009ko eta 2010eko kontu orokorrak.

III. NORAINOKOA

Esako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: diruzaintzaren egoera-orria eta zorraren egoera-orria.

Ekitaldiko aurrekontuak ez dakar berarekin betetze-oinarri arautzailerik, eta haren aurreko dokumentazioa mugatzen da ekitaldian zehar egin beharreko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenetara.

Sozietatearen urteko kontuak, eratu zenetik izan duen jarduera eza dela eta, emaitzen balantzea eta kontua baizik ez dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkoztat jo ditugun hautapena edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikus-tekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak ere ebaluatu dira.

Sozietateari dagokionez, lana zentratu da haren diruzaintza-egoera eta izan dituen gastuak eta diru-sarrerak egiaztatzean.

Kontuen Ganberak Udalaren 1999ko kontu orokorrari buruzko fiskalizazioa egin zuen, eta hartan azpimarratu zen barne kontrolako eta kontabilitate-kudeaketako tresnak nabarmen hobetu behar zitu-ela.

Esa Fundazioari dagokionez, haren egoitza soziala Esako udaletxean bertan dagoenez Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko bat izanda ere, haren funtzionamendua aztertu dugu, eta

aztertu dugu zein izan diren 2007tik gaur arte garatu dituen jarduera nagusiak.

IV. 2011ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenarekin bat, Esako Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

2011ko kontu orokorra Osoko Bilkurak onetsi gabe dago.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Aurrekontu-likidazioak ez ditu jasotzen ekitaldian egiazki sortu diren gastu eta diru-sarrera guztiak.

Ez da betetzen gastu-kredituak mugatzeari buruzko printzipioa.

Balantzeak eta emaitza-kontuak gabeziak, akatsak eta gorabehera aipagarriak dauzkate beren saldoetan.

Zalantza dago 2010ean eta 2011n jasotako diru-laguntza batzuk –84.126,97 euro egiten dute– oker justifikatu izatearen ondorioz Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoak direla eta⁽¹⁾.

Gure iritziak, deskribatutako salbuespenen eragin oso handia dela-eta eta azaldutako zalantzazko egoeraren amaiera ezagutzen denean gerta litezkeen doikuntza-beharren eraginak direla-eta, Udalaren 2011ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrak ez ditu leialki irudikatzen ez bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, ez abenduaren 31ko ondare-egoera eta ez bere eragiketen emaitzak, aplikatu daitezkeen finantzari buruzko informazio publikoaren arauzko esparruari eta, bereziki, bertan bildutako kontularitzako printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Udalak beste erakunde publiko batzuetatik jasotako diru-laguntzei buruz egindako azterketan, ikusi dugu ustezko faltsutzeetatik eratorritako erantzukizun mota desberdinen aztarnak badaudela, bai merkataritza-dokumentuetan, bai aipatutako

(1) Haien xehetasunak eta azalpena txosten honen VI.4. atalean daude.

administrazioei aurkeztutako justifikazioan ere; horrenbestez, Udalak modu irregularrean hartu ditu funts batzuk. Zehaztu beharra dago funts horiek Udalaren kontabilitatean erregistratuta daudela.

Gure iritiz, aurreko salbuespenak sortutako eragin oso aipagarria dela eta, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa ez da garatu legezko-tasun printzipioari jarraituz.

Ondorengo egitate gisa, aipatu nahi dugu alegazioen fasean, Udalaren Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 15eko saioan, erabaki zuela, bestek beste, "elkarrizketak hastea ente ordaintzaileekin", aurreko egoera erregularizatze aldera⁽²⁾.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontu orokorrari buruzko salbuespenak, IV.1 atalean jasotakoak, kontuan hartuta, ondoren Udalaren 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzko ondorio nagusiak azaltzen ditugu.

Udalaren hasierako aurrekontuak 0,37 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak dauzka. Ikusita Udalak ez duela aurrekontu-aldaketen figura era-

biltzen, hasierako kreditu horiek bat datoz behin betiko kredituekin.

Aitortutako betebeharrak 0,31 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 84ko betetze-maila orokorra izan dute. Kapituluak, eta aurrekontu-aldaketarik ez dagoenez, hurrengoek hasierako kredituak gainditzen dituzte: langileriaren kapituluak –ehuneko 104ko betetzearekin– eta ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluak –ehuneko 103ko betetzearekin–. Inbertsioen kapituluaren ehuneko 13 baizik ez da bete.

Aitortutako eskubideek 0,33 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 90ekoa izan da. Nabarmenezkoa da zeharkako zergen eta transferentzia arrunten betetze-maila altua, ehuneko 104 eta 120 egiten duena, hurrenez hurren.

Beren izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastu guztien ehuneko 96 egiten dute. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 93 dira; diru-sarrera horien ehuneko 43 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	33	Tributu bidezko diru-sarrerak	49
Bestelako gastu arruntak	62	Transferentziak	43
Kapital-gastuak	3	Ondarearen diru-sarrerak eta	8
Finantza-zama	2		
	100		100

(2) Ikus Esako Udalak txosten hori buruz aurkeztutako alegazioak.

Aurrekontu-saldo ez finantzarioa 26.415 eurokoa da eta aurrekontu-erregulazioak 21.424 euroko superabita dauka ekitaldia ixteko garaian.

Aurrezki gordina 12.520 eurokoa da; aurrezki garbia, berriz, 7.200 eurokoa.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, zeina baita hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duena, positiboa da; 205.331 eurokoa, hain zuzen.

2011ko abenduaren 31n, Udalak 6.167 euroko epe luzeko zorra dauka; hau da, bere diru-sarrera arrunten ehuneko 2koa.

Azken batean, ikusten da finantzen eta aurrekontuaren magnitude nagusietako balioek behera egin dutela, nahiz eta gastu arrunteei asko eutsi zaien eta inbertsioak nabarmenki gutxitu diren. Diru-sarrera arrunten gutxitzea, batez ere tributu bidezko diru-sarrerena, eragiten ari da Udalaren aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak gutxien-gutxieneko balioetan egotea.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, gure iritziz Udalak behar diren neurriak hartu behar ditu ahal bezain laster, administrazio- eta kontabilitate-prozedura eta -tresna guztiak birplan-teatzeko edo orokorrean aztertzeke, funtzionamendu egokia eta arau indardunen betetzea ziurtatze aldera. Halaber, aztertu behar du ea gaitasunik ba ote duen baliabide berri arruntak sortzeko eta zerga nahiz tasen likidazioaren eta kobrantzaren inguruko kudeaketa hobetzeko.

Azken batean, barne kontroleko tresnen funtzionamendu eskasaren aurrean, beharrezkoa da kontrol sistema bat ezartzea, Udalaren errealitateari egokitu eta aurkitutako akats larriei konponbidea emanen diona.

Bestalde, ahal bezain laster, jasotako diru-laguntzen justifikazioa dela-eta aurkitutako egoera erregularizatzeari ekin behar dio.

Halere, herriko populazioaren eta bere ingurune ekonomikoaren tamaina txikia, giza baliabide eta baliabide material mugatuak eta krisialdi ekonomikoko egoerak kontuetan izan duen eragin finantzarioa direla eta, zalantza handiak daude Udalaren beraren bideragarritasunari buruz, epe ertain eta luzean.

Hori dela eta, Esaren tamaina duten udalek botere publikoen tutoretza- eta aholkularitza-jarduketara bateratua eskatzen dute, bereziki arlo ekonomikoan eta kontabilitatekoan. Beste aukera batzuen artean, mankomunitateen formula edo zerbitzuak emateko beste udal batzuekin elkartzeko bestelako moduak konponbide bat izan daitezke aurkitutako arazo eta akatsei konponbidea emateko.

Azkenik, Udalaren sozietate publikoa likidatu eta desegin beharra dago.

V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2011ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu, Udalak eginak:

V.1. 2011ko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERA-ORRIA

DIRU-SARRERAK

Kap.	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako eskubideak	Ehunekoa	Kobrantzak
1	Zuzeneko zergak	107.000	-	107.000	102.514	96	17.473
2	Zeharkako zergak	5.000	-	5.000	5.203	104	4.418
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	76.240	-	76.240	55.980	73	31.246
4	Transferentzia arruntak	102.760	-	102.760	123.096	120	122.992
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	26.700	-	26.700	25.776	97	23.134
6	Inbertsio errealak besterentzea	0	-	0	59	0	59
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	54.000	-	54.000	22.115	41	22.115
Guztira		371.700	-	371.700	334.743	90	221.437

GASTUAK

Kap.	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Ehunekoa	Ordaindutakoa
1	Langile-gastuak	100.500	-	100.500	104.141	104	84.772
2	Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	179.700	-	179.700	185.298	103	146.099
3	Finantza-gastuak	3.000	-	3.000	328	11	328
4	Transferentzia arruntak	12.900	-	12.900	10.283	80	10.283
6	Inbertsio errealak	63.600	-	63.600	8.279	13	8.279
9	Finantza-pasiboak	12.000	-	12.000	4.992	42	4.992
Guztira		371.700	-	371.700	313.321	84	254.753

V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2011	2010	Aldaketaren ehunekoa, 2011/2010
Aitortutako eskubide garbiak	334.744	606.257	-45
Aitortutako betebeharrak garbiak	313.321	451.983	-31
Aurrekontu-emaiza	21.424	154.274	-86
Doitzeak			
Finantzaketaren desbideratze positiboa			
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa			
Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak			
Merkataritzako eragiketen emaitza			
Aurrekontu-emaiza doituia	21.424	154.274	-86

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2011ko ABENDUAREN 31n.

Kontzeptua	2011	2010	Aldaketaren ehunekoa, 2011/2010
+ Kobratzeko dauden eskubideak	148.994	230.568	-36
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	113.307	195.577	
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	282.975	248.540	
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	17.223	19.546	
- Bilketa zaileko eskubideak	264.511	233.095	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	87.641	56.512	55
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	58.567	29.987	
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	12.926	12.887	
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	16.148	13.638	
+ Diruzaintzako funts likidoak	143.978	39.350	266
+ Finantziarioko desbideratze metatu negatiboak			
+ Diruzaintza-gerakina, guztira	205.331	213.406	-4
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina			
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiek sortua			
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	205.331	213.406	-4

V.4. 2011ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEA

AKTIBOA	2011	2010
Ibilgetua	1.226.854	1.218.633
Ibilgetu materiala	795.061	791.412
Ibilgetu ez-materiala	28.586	28.586
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	399.266	394.635
Herri-ondasunak	-59	0
Finantza-ibilgetua	4.000	4.000
Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak		
Zirkulatzaila	619.294	564.824
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	362.010	272.664
Aurrekontuko zordunak	113.307	252.810
Finantza-kontuak	143.977	39.350
Aktiboa, guztira	1.846.148	1.783.457

PASIBOA	2011	2010
Funts berekiak	1.752.267	1.688.304
Ondarea eta erreserbak	1.739.747	1.572.532
Entregaturiko ondasun eta eskubideak		
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	12.520	115.772
Epe luzeko zorrak	6.240	38.641
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	5.240	38.641
Epe laburreko zorrak	87.641	56.512
Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko hartzekodunak	29.074	26.525
Aurrekontuko hartzekodunak	58.567	29.987
Pasiboa, guztira	1.846.148	1.783.457

V.5. 2011KO EMAITZA EKONOMIKOA

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
61 Langile-gastuak	104.141	119.197	70 Salmentak	55.978	222.212
62 Finantza-gastuak	328	539	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	25.777	24.458
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	185.298	210.566	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	85.856	89.112
67 Transferentzia arruntak	10.283	37.087	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	21.004	20.343
68 Kapital-transferentziak			76 Transferentzia arruntak	12.096	124.318
69 Kalkulatoriko gastuak			77 Kapitalaren gaineko zergak	858	2.719
80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa			78 Bestelako diru-sarrerak		
82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak		269	80 Ekitaldiaren emaitza korrantea	12.502	115.773
83 Finantza aktiboen salmentarengatiko galerak			82 Irabaziak inbertsioak besterentzean eta bestelako inbertsio errealak		102.003
84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	246		83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak		
89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa			84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	246	
			89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	12.520	115.773

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTE-ARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2011rako aurrekontua 2011ko apirilean onetsi zen. Nabarmendu behar dugu aurrekontu horrekin batera ez dagoela haren garapena araupetzen duen oinarriak.

Txosten hau egiteko egunean, Osoko Bilkurak ez du Udalaren kontu orokorra onetsi; eta egoera bereberetan daude 2009ko eta 2010eko kontuak. Horrenbestez, kontuak ez zaizkio Nafarroako Gobernuari bidali, nahiz eta aurrekontuaren likidazioari buruzko kasuko egoera-orriak bidali zaizkion.

Ez dira gastuetarako kredituen behar diren aldaketak egiten, eta horrek eragiten du zenbait kapituluetan aitortutako betebeharrak kredituak baino handiagoak izatea.

Kontabilitatearen eta aurrekontuaren kudeaketa idazkari eta kontu-hartzailea denak egiten du, eta bera da, gainera, Udalaren gainerako eginkizun administratibo eta kudeaketakoak bere gain hartzen dituena; esate baterako, jendeari arreta egitea. Astean 20 orduko lan-jardunaldia dauka. 2011ko ekitaldira arte, arlo ekonomikorako eta kontabilitaterako kanpoko aholkularitza edukitzen zuen Udalak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuaren tratamendua aplikazio informatiko batekin egiten bada ere, ikusten da, batetik, aurrekontu-eta kontabilitate-printzipioen aplikazioan gorabeherak eta koherentzia falta daudela, eta, bestetik, kontabilitatekoaz beste aplikazio informatiko lagungarriak ez dagoela. Hori dela eta, eskuzko lan arduratsuak egin behar izaten dira, batez ere zergen arloan. Jarduteko modu hori dela eta, atzerapen handiak daude kontabilitatearen kudeaketan eta kobrantza nahiz ordaintzetan.

Oro har, kontabilitate-dokumentuak sinatu gabe daude, eta eransten zaizkion fakturretan beharrezkoa den adostasuna falta da.

Ikusten dugu ezen, gutxienez ere bi kontu korrontetan, funtsak banakako batek atera ditzakeela.

Dokumentazioaren kontrolean, kudeaketan eta artxibatzean akatsak aurkitu dira.

2011ko abenduaren 31ko zorra 6.167 eurokoa da, eta zenbateko hori bat dator 2001n sareak berritzeko itundu zen maileguarenarekin –mailegu horrek, guztira, 50.901 euroko zenbatekoa zeukan–. Mugaeguna 2013ko urtarrilean du maileguak.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra onestea, indarrean dagoen legedian ezarrita dauden epeei eta edukiari jarraituz.*

- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Udalak arlo ekonomikoan eta kontabilitatean duen funtzionamendua aztertu eta analizatzea, eta bestelako aukerak bilatzea egungo egoerari buelta emateko, kanpoko lankidetzaren bidetik edoleta beste udal batzuk elkartzearen bidetik.*

- *Egiatzatzea aurrekontu-krediturik badagoela eta, kasua bada, aurrekontu-aldaketak egiteko behar diren figurak aplikatzea.*

- *Gastu bakoitza behar bezala erregistratzea, bere izaera ekonomikoari eta bere sortzapenari dagokion ekitaldiari erreparatuz.*

- *Kontu korrontetako funtsen erabilpen oro bi sinadura batera emanda egin behar da.*

- *Behar den justifikazioa eranstea, beha bezalako adostasuna adierazia duena, kontabilitate dokumentu bakoitzari.*

VI.2. AURREKONTUETAKO GASTUAK

VI.2.1. Langileak

Langileen kapituluko gastua 104.141 eurokoa da; hau da, Udalaren gastuen ehuneko 33. Abenduaren 31n, ia 20.000 euro ordaintzeke daude, langileen abenduko lansariari eta zinegotzien lansari guztiei dagozkienak.

Honakoak dira Udalean lan egiten duten pertsonak:

- Idazkari kontu-hartzaile bat, A mailakoa, 1999tik administrazio-kontratua duena.

- Zerbitzu anitzetako langile bat, E mailakoa, funtzionarioa.

- Zerbitzu anitzetako langile bat, E mailakoa, aldi baterako lan-kontratua duena 2007tik.

Azken pertsona hori ez dago jasota Udalaren plantilla organikoan.

Halaber, udako hilabeteetan, hiru sorosle kontratatu ziren udal igerilekuetarako.

Egiaztatu da ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarrita daudenak direla, eta atxiki-penak zuzenak direla; halaber, egiaztatu da langile guztiei 2011ko soldata-izoztea aplikatu zaiela.

Kapitulu horren barrenean sartzen da zinegotzientzako lansaria, 10.941 euro egiten duena. Lansari hori bat dator Nafarroako Gobernuak xede horretarako ematen duen diru-laguntzarekin, eta udal gobernuko orano desberdinetara izandako bertaratzeen eta bertaratu direnen arabera banatzen da.

VI.2.2. Administrazio-kontratazioa

Nahiz eta egindako gastuek inoiz ere ez dituzten gaingitzen kasuko kontratazio espediente administratiboa izapidetzeko ezarritako mugak, aztertutako dokumentazioan ez daude jasota aurretik egindako jarduerak. Faktura eta kontabilitate-dokumentua baizik ez dira ageri, eta azken hori, normalean, sinatu gabe dago.

2011ko kopuru garrantzitsuena ekonomia eta lan arloetako aholkularitzari dagokiona da, eta 5.405 euro egiten du. Aholkularitza hori 2012an desagertu zen.

VI.2.3. Bestelako gastuak

Egindako azterketatik, honako hau nabarmendu nahi dugu:

- Ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluaren barruan, udal jaietara bideratzen den zenbatekoa 36.249 eurokoa da; hau da, kapitulu horretako

gastuen ehuneko 20 edo 2011n egindako gastu guztiaren ehuneko 12.

- NILSA enpresa publikoaren 2011ko saneamendu kanona kontabilizatu eta ordaindu gabe dago; 2010ean, gastu hori 23.284 eurokoa izan zen. Udalak ez du kanon hori bereiz erregistratzen bizilagunei uraren kontsumoa fakturatzeko garaietan. Izan ere kontabilizatzen eta ordaintzen da aipatutako enpresak zenbatekoaren kalkulu bat igortzen dionean banaketa-kontuaren bitartez.

- Goi presioko uraren kontsumoari dagokion gastua, urteko hiru hiruhilekoetako, ordaintzeko dago. 31.089 euro egiten du. Egoera horrek berekin ekarri du, Udalak adierazi bezala, Mankomunitateak ez dituela kontsumo horiek kobratzeko igorri.

Hona gure gomendioak:

- *Zorrotz aplikatzea aurrekontu-egozketari buruzko printzipioak, ekitaldian sortutako gastuei dagokienez.*

- *Aurrekontuarekin batera betetze-oinarri batzuk edukitzea, besteak beste, erosketak egiteko eta gainerako kontratazioetarako aplikatzekoa den prozedura arautuko dutenak.*

VI.3. ZERGEN ETA TASEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

VI.3.1. Zergak

Zergen bidezko diru-sarrerek 107.718 euro egiten dute, eta ehuneko 4 egin dute behera 2010arekin alderatuta, hurrengo taulan zehazten den bezala:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren ehunekoak, 2011/2010
	2010	2011	
Landa-lurraren gaineko	1.586	1.559	-2
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	72.358	71.813	-1
Ibilgailuak	20.343	21.004	3
Lursailen balioa handitzea	2.719	858	-68
JEZa	7.708	7.280	-6
EIOZa	7.459	5.204	-30
Guztira	112.174	107.718	-4

Alde erlatibo nagusiak lurzoruen balio gehikuntzaren gaineko zergaren eta EIOZaren jaitsieran aurkitzen dira. Kontribuzioa eta ibilgailuen gaineko zerga, berriz, antzeko terminoetan daude.

Udalak aplikatutako tipoak hurrengo taulan ageri direnak dira:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,679	0,10 – 0,80
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	0,412	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2tik 3,3ra	2tik 3,3ra
Karga-tasa	8	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4	2 - 5

2011n 2010eko zerga-tasei eusten zaie.

Hurrengo taulan, aitortutako eskubideen eta haien kobrantzaren 2010eko eta 2011ko bilakaera islatzen da.

Deskribapena	Aitortutako eskubideak, -10		Aitortutako eskubideak, -11	
	Kobratua -10	Kobratua -11	Kobratua -10	Kobratua -11
Landa-lurraren gaineko	1.586	2	1.559	0
Hirilurraren gaineko	72.358	399	71.813	0
Ibilgailuak	20.343	16.431	21.004	16.615
Lurren balioaren igoeraren	2.719	2.719	858	858
JEZ	7.708	0	7.280	0
EIOZ	7.459	7.351	5.204	4.418

Ikusten den bezala, kobrantzen kudeaketa eskasa da, bereziki zuzeneko zergetan; besteak beste, nabarmendu behar da 2011ko abenduaren 31n ez dela inolako zenbatekorik kobratu kontribuzioarengatik eta ekitaldian sortutako jarduera ekonomikoen gaineko zergarengatik. Inguruabar horren arrazoia da erroldaren eta kobrantzarako kudeaketaren izapidetzea urte bakoitzeko abenduaren amaieran hasten dela; horren emaitza da kobratzeko dauden zenbateko ia guztiak itxitako ekitaldiei dagozkiela eta zenbateko horiek hurrengo ekitaldietan kudeatzen direla.

Egindako azterketan, aipatutako kobrantzaldiaz gainera, honakoak nabarmentzen ditugu:

- Udalak, kasuko balorazio-ponentziaren azterketa egiteko zain dagoela, hiri-kontribuziorako eta landa-kontribuziorako tipoak bereizten jarraitzen du, eta ez da egokitu 2006tik indarrean dagoen Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 139. artikuluan ezarritako tipo bakarrari.

- Ez dago jasota erroldak berariaz onetsi diren, eta, gainera, ez da aztertu arrazoizkoak diren.

Errolda horien aldaketak ez daude bermatuta dokumentu bidez.

- Errolda bidez kudeatzen diren zergetan, behin Udalak haiek jasota, eskuz bereizten dira, honako irizpidearekin: alde batetik, helbideratuta daudenak eta, bestetik, helbideratuta ez daudenak. Azken horiek zergadunei bidaltzen zaizkie. Ez dago haiei buruzko ez zerrendarik, ez diru-zenbatekorik.

- Ez da egiaztatzen ordainagiri guztiak igorri diren eta haien zenbatekoa zuzena den.

- Ez da kontabilitate-jarraipenik egiten kobratzeke dauden zordunei buruz, bereziki helbideratuta ez daudenei buruz.

- Kobrantzarako borondatezko epea iraganda, ez dira aplikatzen lege indardunak ezarritako gainkarguak, eta ez dira sistematikoki bide exekutibora eramaten.

VI.3.2. Uraren eta estolden gaineko tasa

Hurrengo taulan erakusten dugu 2010eko eta 2011ko ekitaldietako tasa horren kontabilitate-informazioa:

Deskribapena	Aitortutako eskubideak, -10	Kobratua -10	Aitortutako eskubideak, -11	Kobratua -11
Uraren eta estolden gainerako tasa	112.165,88	45.736,52	21.198,19	313,01

Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

- Aurreko zenbatekoek islatzen dute bai uraren kontsumoa, bai kontsumo horren gainerako karga ezartzen duten saneamendu-zergak eta kanona. Azken kontzeptu hori ez da kontabilitatean bereiz erregistratzen; ordainarazitako BEZa, berriz, kontabilitate orokorrean erregistratzen da kalkulu edo estimazio orokor baten bitartez.

- Ezin da fede emateko moduan ezagutu zein ekitaldiri dagozkion kontabilizatutako diru-sarrerak, ez eta denak sortuta dauden ere. Hartara, 2010ean aitortutako eskubideak, funtsean, bat datoz 2009ko eta 2010eko kontsumoekin; 2011ko eskubideak, aldiz, urte horretako lehen sei hilekoko kontsumoei dagozkie soilik –kontagailuak urrian irakurri ziren–, baina 2012ko uztailan prestatu ziren eta orduan kudeatu zen haien kobrantza; hau da, 2011ko aurrekontu-likidazioari egozten zaizkio 2012an aitortu ziren eskubide batzuk. Aurreko erroldetako diru-sarrerei irakurketa-aldi desberdinei dagozkien banakako ordainsariak gehitzen zaizkie.

- Ekitaldi bakoitzeko erroldak –seihileko bakoitzeko bat– eskuz egindako bi zerrenda dituzte: bata helbideratutako ordainagiriekin eta bestea helbideratu gabekoekin. Zerrenda horien guztizkoa egin gabe dago, eta haietan ez dira aipatzen egindako kontsumoak. Ez dago jasota, ezta ere, subjektu pasibo guztiak hartzen ote dituzten.

- 2011ko kobrantzak, aurreko atalean aztertutako zergekin gertatzen den bezala, ia ez dira existitzen, zeren eta haien kobrantza 2012ko uztailan kudeatu baitzen.

- 2011ko abenduaren 31n, kontabilitatearen arabera, urte horretako eta aurreko ekitaldietako tasa kobratu gabe dago. Tasa hori 78.104,89 eurokoa da. Zenbateko horretatik, ehuneko 65 2007a baino lehenagoko zorrei dagokie.

- Saneamendu kanona ez da likidatzen; Udalen banaketa-kontutik deskontatzen da NILSA enpresak egindako kalkulu baten arabera. 2010eko aurrekontuan, 2009ko eta 2010eko kanona ordaintzen da; 2011koan, ordea, ez dago inongo zenbatekorik kontzeptu hori dela eta.

Hona gure gomendioak:

- *Lurralde-kontribuzioaren tasak arau indardunen arabera egokitzea.*

- *Zergadunen zentsu batzuk edo datu base batzuk ezartzea tributu-figuraren arabera, subjektu pasibo guztien informazioa eduki ahal izateko eta, gero, errolden eta igorritako ordainagiriaren arrazoizkotasuna egiaztatu ahal izateko.*

- *Erroldak prestatu eta likidatzea kasuko zergapeko egitatea sortzen den ekitaldiaren barruan.*

- *Zerga eta tasen kobrantzarako izapideak behar den denborarekin hastea, haien kobrantza, funtsean, sortzapenaren urteari egotzi ahal izateko.*

- *Laguntza-tresnak eta diru-sarrerak kudeatzeko prozedurak ezartzea, igorritako ordainsarien arrazoizkotasuna eta kontabilitate-jarraipena segurtatu ahal izate aldera.*

- *Uraren gainerako tasen bidezko diru-sarrerak eta kontsumo horren gainerako karga, ezartzen duten zergak eta kanonak xehakatzeko eta bereiz kontabilizatzea.*

- *Ordaintzeke dauden zenbatekoen kobrantzaren gainerako kudeaketa egokia egitea, eta saldoen arrazoizkotasuna aztertzea.*

- *Borondatzeko epearen barruan kobratzen ez diren zergei lege indardunetan ezarritako gainkargak aplikatzea, eta premiamenduzko bidea aldizka eta sistematikoki erabiltzea.*

VI.4. EZUSTEKOENGATIKO DIRU-SARRERAK

IV.4.1. 2011ko ekitaldia

Ezustekoengatiko diru-sarreraren barruan, 2011n, 7.114,20 euroko diru-sarrera bat badago, "Udalak azterlanak egite aldera egindako lanak" kontzeptuaren barruan. Aholkularitza enpresa batek ordaindu zuen zenbateko hori eta Udalak igorritako faktura batean du euskarria.

Eskura dagoen dokumentazioa aztertuta, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak, tokiko garapena sustatzeko diru-laguntzak emate aldera, emandako 1999ko uztailaren 15eko Ministerio Aginduaren babesean –Nafarroako Enplegu Zerbi-

tzuak izapidetzen ditu laguntza horiek-, Udalak azterlan proiektu bat aurkeztu zuen “Esa garatu eta sustatzeko kanpaina” bat egiteko. Horren aurrekontu orokorra 14.827,60 eurokoa da (BEZik gabe).

- 2010eko apirilean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diru-laguntza bat eman zion Udalari aurreko azterlan hori egiteko. 10.379,30 eurokoa zen laguntza hori (kalkulatutako kostuaren ehuneko 70).

- Kontratazio-espediterearen izapidetzea jasota ez badago ere, Udalak azterlan hori aholkularitza-enpresa bati enkargatu zion. Enpresa horrek 2010eko abenduan lan hori fakturatu zion Udalari honako prezioan: 14.825 euro (BEZik gabe) edo 17.493,50 euro (BEZa barne).

- 2011ko martxoaren 30ean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Udalak igorritako dokumentazioa aztertu ondoren, erabaki zuen Udalari 10.377,50 euroko diru-laguntza ematea –fakturaren BEZik gabeko kostuaren ehuneko 70–.

- 2011ko urtarrilean –hau da, diru-laguntza hori ordaindu baino lehen–, Udalak aholkularitza-enpresari 6.028,98 euroko zenbatekoa (BEZik gabe) edo 7.114,20 euroko zenbatekoa (BEZa barne) fakturatu zion “Udalak azterlanak egite aldera egindako lanengatik”. Ez dago dokumentaziorik edo justifikaziorik lan horien izaerari buruz.

- Litekeena da aholkularitza enpresari ordaindutako zenbatekoa Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundu ez duen azterlanaren zatiari egokitztea.

Azterlanaren ardatzak dira Esaren inguruko informazio orokorra ematea eta lurraldearen garapen sozio-ekonomikoa garatzen laguntzeko gomendio berdin orokorrak proposatzea. Ez dago jasota azterlan horretatik berariaz eratorritako jarduketak praktikorik gauzatu denik.

Azterlan horri buruzko datu ekonomikoak hurrengo taulan azaltzen ditugu, laburbilduta (zenbatekoek BEZa barne dute):

Gastua	Zenbatekoa	Finantziarioa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Azterlanaren faktura	17.493,50	NEZaren diru-laguntza	10.377,50	70
		Ezusteak. Udalaren faktura	7.114,20	30
Gastua, guztira	17.493,50	Finantziarioa, guztira	17.491,70	100

Azken batez, egoera irregular bat izan da, zeinetatik ondoriozta baitaiteke diru-laguntzak itzuli behar izatea, haien justifikazioa eta hari dagozkion merkataritza-dokumentuak ustez faltsutu direlako. Horretan guztian, kontabilitate- eta zigor-erantzukizunen aztarnak leudeke.

VI.4.2. 2010eko eta 2011ko ekitaldiak

2010eko ezustekoaren kontzeptua aztertuta, ikusten da, halaber, elektrizitate enpresa batek Udalari 23.847,69 euroko diru-sarrera egin diola, “obretako material elektrikoaren salmenta, berrera-bilpenerako” kontzeptuaren pean. Ohar hori kontabilitate-dokumentu bakarrera mugatzen da, eta ez da inolako justifikaziorik ageri egindako eragiketari buruz. Zenbateko hori bat dator enpresak berak zenbateko berarekin egindako faktura batekin. Udalak ordaindu zion faktura hori “argiteria publikorako obrak” egiteagatik.

“Argiteria publikorako obrak” kontzeptuaren pean, ikusten da 2010etik 2011ra Udalak zenbait jarduketak egin dituela, guztiak ere entitate publikoen finantziarioekin. Zehazki:

a) Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtza edo E-2010 Plana.

E-2010 Planetik 27.650,30 euroko diru-laguntza jasotzen du; diru-laguntza hori bi epetan ordaindu zen.

Lehena. Ehuneko 85 diruz lagundu beharreko proiektua aurkezterakoan. 23.502,75 euro egiten du. Udalak 2010eko aurrekontuari egotzi zion, eta egiazki 2011n jaso zuen.

Hura kobratzeko justifikazio gisa, Udalak Estatuko Administrazio Orokorrari 27.650,20 euro egiten duen proiektu eta aurrekontu bat aurkeztu zion “Argiteria obrak” kontzeptuaren pean. Zenbateko horretan sartzen dira bai obra bera, bai proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko lansariak ere.

Bigarrena. Gainerako ehuneko 15a, 4.147,55 eurokoa, egiazki egindako gastuaren justifikazioa aurkezterakoan. Diru-sarrera hori 2012ko martxoan jaso zen. Justifikazio gisa, Estatuko Administrazio Orokorrari, besteak beste, honako dokumentazioa igorri zitzaion 2011ko urtarrilean:

- Obraren amaierako ziurtagiria, zeina ziurtagiri bakarra baita, 23.847,69 eurokoa. Obra zuzendaritzak, kontratistak eta alkateak sinatua da, 2010eko abenduan.

- Obrak hartzeari buruzko akta, adostasuna emateko obra zuzendaritzak eta kontratistak sinatua, 2010eko abenduan.

- Obrez arduratu den elektrizitate enpresaren faktura bat, 23.847,69 eurokoa, 2010eko abenduan egina; zenbateko hori bat dator, zehatz, enpresa horrek Udalarari egindako ordainketaren zenbatekoarekin. Udalak zenbateko hori "ezusteko diru-sarrerara" gisa kontabilizatu zuen 2010ean.

- Halaber, 2011ko urtarrilean, bi faktura gehitu ziren, proiektua idazteari eta obra zuzendaritzari zegozkien lansariekin. Guztira, 4.279,33 euro egiten dute. Gainera, beste faktura bat ere badago, plan horri buruzko kartel bat egiteko gatuekin (351,64 euroko faktura da).

b) Argiteria obrak zabaltzea.

Udalak, 2009an, libreki erabiltzeko diru-laguntza bat eskatu zion Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioari, eta lortu ere egin zuen. Diru-laguntza hori 2009-2012 Inbertsio Planari zegokion eta xede zuen "Argiteria obrak zabaltzea". 46.009,17 eurokoa zen diru-laguntza, eta 2010ean ordaindu zen. Libreki erabiltzeko diru-laguntza horiek ezaugarri bat badute: onuraduna den Udala bera da haien xedea erabakitzen duena. Aipatzen da, besteak beste, toki eskumeneko inbertsioak finantzatzeko erabiliko dela.

Diru-laguntza horren justifikazioari buruz Udalean eskuragarri dagoen dokumentazioa dela-eta honakoa adierazi behar dugu:

- Ez dago jasota egin beharreko obraren ez proiekturik, ez aurrekonturik.

- Fakturak, guztira, 52.650,84 euro egiten dute, eta teorikoki Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztu zizkion egindako obraren justifikazio gisa. Faktura horiek guztiek 2009ko data daukate, eta honakoa esan behar dugu haiei buruz:

1. Kontabilitatearen ikuspuntutik, "Argiteria zabaltzea" inbertsioen kontzeptuan, 2010ean soilik

aurreko fakturetatik bat erregistratu zen, egindako lanei zegokiena –zehaztu gabe zeuden–. Elektrizitate enpresa batek egina zen eta 20.145,44 euroko zenbatekoa zuen.

2. Gainerakoa –hau da, 32.505,40 euro– aipatutako obrarekin zuzenean lotuta ez zeuden fakturari zegokien. Faktura horiek aurrekontuko gastu arrunteko zenbati kontusailetan kontabilizatuta zeuden. Fakturak udal ekipamenduen mantentzearekin lotutako gai batzuei egiten ziren erreferentzia: eraikuntza-materialak eta lorezaintzakoak, igerilekua eta abar.

Aurreko informazioa Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiaren diru-laguntzari buruzko espedienteko datuekin alderatuta, honakoa adierazi behar dugu:

- Udalak, diru-laguntza eman baino lehen, egin beharreko obraren aurrekontu bat aurkeztu zuen, 61.275,77 euro egiten zuena.

- Egindako lanak justifikatzeko, zenbateko hori jasotzen duen faktura baten kopia kautotua aurkeztu zuen, bai eta inbertsio horietarako beste administrazio publiko batzuetatik diru-laguntzarik jaso ez izateari buruzko ziurtagiri bat ere.

- Bai aurrekontua, bai faktura a) atalean aipatutako elektrizitate enpresak eginak dira.

- Aurreko faktura hori ez da ageri ez erregistraturik, ez ordaindurik Udalaren kontabilitatean.

- Ganbera honek hornitzaile horri igorritako zirkularri emandako erantzunari erreparatuta, faktura hori ez dago jasota Udalaren izanean egindako fakturen zerrendan.

c) Argiteria publikoaren hobekuntzak.

Aipatutako elektrizitate enpresen faktura batzuk badaude, 7.192,42 euro egiten dutenak eta Nafarroako Gobernuaren 6.163,93 euroko diru-laguntza batekin finantzatzen direnak, Esa Fundazioaren bitartez.

Laburbilduz, argiteria obra horiek direla-eta honako gastuak eta diru-sarrerak erregistratu ziren Udalaren kontabilitatean:

Inbertsioen kontusailak	Gastuak	Hornitzailea	Kontusaila	Diru-sarrerak	Diru-sareren jatorria
2010 Argiteria obrak	23.847,69	1. enpresa	E-2010 Plana (% 85)	23.502,75	Estatua
			Aurreikusi gabekoak	23.847,69	1. enpresa
Argiteria obrak zabaltzea	20.145,44	2. enpresa	Inbertsio Plana	46.099,17	Nafarroako Gobernua
Argiteria publikoa hobetzea	3.656,72	2. enpresa	Diru-laguntza	6.163,93	Esa Fundazioa-Nafarroako Gobernua
Argiteria publikoa hobetzea	3.535,65	1. enpresa			
2011 Argiteria obren lansariak. E-2010 Plana.	4.279,33				
E-2010 Planeko kartela	351,64				
2012			E-2010 Plana (% 15)	4.147,55	Estatua
Gastuak, guztira	55.816,47		Diru-sarrerak, guztira	103.671,09	

Ikusten da, horrenbestez, honako jarduketa irregularrak izan direla:

- E Planeko diru-laguntza.

Diru-laguntza justifikatzeko aurkezten den fakturaren zenbatekoa gero osorik itzultzen zaio Udalari. Horrenbestez, pentsa liteke diru-laguntzaren xede diren lanak ez direla existitu eta inbertsio horren oinarrian dauden fakturen merkataritza-errealitatea faltsutu egin dela.

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza.

Ikusten da diru-laguntza horren justifikazioan inkoherentzia bat eta guztizko dibergentzia bat ageri direla Udalaren dokumentazioa eta Udalak Nafarroako Gobernuari igorritako dokumentazioa alderatu ondoren. Hartara, Gobernuaren aurrean diru-laguntza justifikatzen da Udalak udal artxibo-

en arabera ez kontabilizatuta, ez ordainduta ez duen faktura baten bitartez. Izan ere, fakturen multzo bat badago, zeinetatik, printzipioz, bat bakarra –20.145,44 eurokoa– izan baitaiteke diru-laguntzaren xede den obrari dagokiona. Horrenbestez, pentsa liteke faltsutze bat egon dela bai merkataritza-dokumentuan, bai hartan, aurkeztutako justifikazio gisa, jaso diren lanetan.

Laburbilduz, Udalak beste administrazio publiko batzuetatik jasotako diru-laguntzak aztertu ondoren, ikusten da jokabide guztiz irregularra dagoela, eta bai merkataritza-dokumentuak, bai aurkeztutako egiaztagiriak ustez faltsutu egin direla. Jarduketa horiek beraiekin ekarri dute Udalak funts batzuk modu irregularrean lortzea. Horretan, erantzukizun mota desberdinen aztarnak aurki daitezke. Laburbilduz, modu irregularrean jasotako diru-laguntzak honako taulan laburbiltzen dira:

Diru-laguntzak.	Zenbatekoa
2010 Plana	27.650,30
Nafarroako Gobernuko Nafarroako Enplegu Zerbitzua	10.377,50
Nafarroako Gobernuaren Inbertsio Plana	46.099,17
Guztira	84.126,97

Zehaztu beharra dago ezen diru-laguntza horien zenbatekoa Udalaren kontabilitatean erregistratuta dagoela.

Gomendatzen dugu Udalak 2010eko Estatuko Funtsetik eta Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzetan antzematen den egoera ahal bezain laster erregulariza dezala.

VI.5. BALANTZEA ETA EMAITZEN KONTUA

Aplikazio informatikotik zuzenean lortzen diren kontabilitate orokorreko egoera-orriak direla-eta ez da barne-azterketarik edo berrikuspenik egiten, egiaztatze aldera ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko ondare-egoera noraino adierazten duten.

Besteak beste, ondokoak azpimarratu ditugu:

- Inbentarioa, zeina 1998koa baita, ez da gaurkotu. Hala eta guztiz ere, udalbatza bakoitzaren legegintzaldi aldaketan, aldi horretan gertatutako alden eta bajen zerrenda bat egiten da.

- Ez dira ibilgetuan sartzen Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Udalari emandako inbertsioak, Esak urtegiaren handitzearen ondoriozko lurralde-lehengoratzeari buruzko planaren ondoriozkoak. Obra horiek zuzenean egiten ditu Konfederazio horrek udal barruti osoan, eta udal ondasunei dagozkienak udal bakoitzari ematen zaizkio kasuko aktaren bitartez. Eskura dagoen informazioaren arabera, inbertsio horiek, udal barruti osoa hartuta, 5,1 milioi euro inguru egiten dute. Hona xehetasunak:

Inbertsioa	Aurrekontuaren zenbatekoa
Tokiko sareak hobetzea (hornikuntza, saneamendua...)	1.604.333,42
Higiezinak egokitzea (aterpetxea)	492.290,98
Bidezidorrak eta behatokiak	658.144,80
Leireko monasteriora iristeko bidea hobetzea	218.245,29
Azpiegiturak hobetzea (ureztalurrak)	805.803,73
Yamaguchi plazaren drainatzea hobetzea	493.834,23
Leireko monasterioko hilerria hobetzea	154.977,96
San Esteban eliza zaharberritzea	758.000,00

Aurreko inbertsioetatik 4 milioi euro inguru Esako Udalaren ondareari dagozkio.

Aurreko inbertsioez gainera, badakigu Konfederazioak ondorengo beste inbertsio hauek egin dituela udal ondarean –haien aurrekontuari nahiz kostuari buruzko informaziorik ez dugu–:

a) Kiroldegia eta eraikin sozio-kulturala egokitzea. Lehendik zegoen pilotalekua zaharberritu eta estali da, kiroldegi gisa erabil dadin.

b) Udaletxea zaharberritzea eta antzinako etxebizitza Udalaren bilkura-areto gisa prestatzea.

c) Hilerria zabaltzea eta hirurogei nitxo egitea.

- Inbertsio amaitzeko unean, ez da kitatzen erabilera orokorrerako azpiegituren kontua entregatutako ondarearen dagokion kontuarekin.

- Herri-ondasunen saldoak, 2011n, -59 euroko zenbatekoa egiten du.

- Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko zordunak ez datoz bat diruzaintza-gerakinarren egoera-orrian adierazitakoekin. 2011ko balantzean 61.811 euroko gehiegizko balorazioa dute.

- 2010eko aurrekontuko zordunek 57.233 euroko gehiegizko balorazioa dute.

- Epe luzeko zorrak, 2011n, 73 euroko gehiegizko balorazioa du; 2010ean, berriz, gehiegizko balorazio hori 27.483 eurokoa zen.

- 2010eko ekitaldiaren emaitza ekonomikoaren batura oker eginda dago. 102.003 euroko gutxie-gizko balorazioa ageri du. Akats hori 2010eko eta 2011ko balantzeko funts berekien saldora eraman-da dago.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren jabetzakoak diren ondasunak jasoko dituen inbentario bat egitea, eta hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotzea.*

- *Aplikazio informatikoak ematen dituen kontabilitateko egoera-orriak aztertu eta berrikustea, eta haiek zuzenak direla eta errealtatea adierazten dutela egiaztatzea.*

VI.6. HIRIGINTZA

Udalaren planeamendu indarduna 1993an onetsitako arau subsidiario batzuetatik dator. Arau horietan 30 aldaketa inguru egin izan dira urte hauetan.

Bai arauak onetsi zireneko urteak, bai haiek direla-eta izandako aldaketek adierazten dute aipatutako planeamendua agortuta dagoela eta

hirigintza-planeamendurako tresna berri bat behar dela, ahal bezain laster.

Udalak halako tresna berririk ez izatea justifikatu izan du esanez urtegiaren handitzeak zenbaterainoko kota hartuko zuen behin betiko ez zekiela.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitarte, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

2010ean, Udalak udal plan berri bat egiteko lanak hasi zituen. Horretan, 11.092 euro gastatu zituen eta Nafarroako Gobernuaren 8.723 euroko konturako diru-laguntza jaso zuen xede horretarako. 2011n, ez dago jasota lan horiei jarraipena eman zaienik.

Hurrengo taulan islatzen dugu 1971tik zenbat etxebizitza eraiki diren udalerrian:

Eraikitako etxebizitzak	Kopurua
1971tik 1980ra	129
1981tik 1990era	21
1991tik 2000ra	35
2001etik 2008ra	95
2009	1
2010	2
2011	0

Udalak ez du prestatu eta ez du, ezta ere, kudeatzen aginduzkoa den Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistroa.

Txosten hau idazteko egunean, udal barrutiko mendi-mazela batean luizia izan da, eta hori eragina izaten ari da hartan eraikitako etxebizitzaren egonkortasunean. Gaur den egunean, ez dakigu egoera horrek zein eragin ekonomiko izan ditzakeen udalaren finantzetan.

Hona gure gomendioak:

- *Udalerraren egungo errealitatearen arabera hirigintza-planeamendu berria izateko izapideak amaitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistro eta inbentarioa egin eta kudeatzea.*

VI.7. SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL DE YESA SL.

Udalak 2008an eratu zuen udal hirigintza-sozietatea, 4.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital hori osorik Udalak harpidetu eta ordaindu zuen.

Sozietatearen estatutuen arabera –2008ko urriaren 3an argitaratu ziren NAO–, honakoa da haren xede soziala: hiriaren zaharberrikuntzan, etxebizitzaren eta bestelako eraikinen sustapenean eta lurren urbanizazioan udal ekintzaren eraginkortasuna areagotzea, endekatutako hiri eremuak osoki berpizteko eta, bide horretatik, orube eraiki-

garrien eta eraikinen salmenta eta errentamendu prezioak beheratzeko.

Sozietate hori ez da oraindik inskribatu Merkataritza Erregistroan. Hartara, 2009ko maiatzean, sozietatea eratzeko eskritura izenpetu zen, eta 2009ko maiatzaren 25ean aurkeztu zen aipatutako erregistroan. Ekainaren 2ko idazki batean, erregistratzaileak jakinarazi zien ezin zuela sozietatea erregistratu, zenbait akats aurkitu zituelako. 2009ko abuztuan Udalaren Osoko Bilkurak estatutuen aldaketa bat onetsi zuen, Erregistroaren eskakizunak betetze aldera. Akats horien zuzenketak ez da eskritura publikoan jaso, erregistratzaileak eskatu bezala. Horrenbestez, sozietatea aipatutako erregistroan inskribatu gabe dago.

Sortu zenetik, sozietate horrek ez du inolako jarduerarik egin. Udalak kontu korronte bat ireki zuen sozietatearen izenean finantza-entitate batean, eta hartan 4.000 euroko kapital-ekarpena sartu zen. Kontu horren laburpenetan ez da mugimendurik ageri, salbu eta haren mantentze-gastuak eta diru-sarrera finantzarioak. Sozietatea eratzetik eta merkataritza-erregistroan inskribatzeko huts egindako prozesutik eratorritako gastuak Udalak ordaindu zituen, eta 375,34 eurokoak izan ziren.

Sozietatearen egoera-orri finantzarioek, laburbilduz, honako informazioa baino ez dute jasotzen (eurotan):

	2009	2010	2011
	3.982,14	3.944,38	3.904,62
	4.000,00	4.000,00	4.000,00
tza	-17,86	-37,76	-39,76
tza		-17,86	-55,62
aren mantentze-gastuak	18,07	38,12	40,12
-sarrera finantzarioak	0,21	0,36	0,36

Arestiko iruzkinei jarraituz:

Gomendatzen dugu Udalak behar diren erabakiak har ditzala sozietatea desegin eta likidatzeko.

VII. YESA FUNDAZIOA

2007ko apirilean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Yesa fundazioa eratzea. Irabazi asmorik gabeko fundazio bat da, zeinaren xedea baita Esako urtegiko handitzearen eragin-eremuan ekin-tza batzuk egitea. Ereku horrek, hasiera batez, honako udalerrriak hartuko ditu: Xabier, Ledea, Irunberri, Zangoza eta Esa. Gero, 2010ean, Kasedako eta Galipentzuko Udalak ere sartu ziren.

Helbide soziala Esako udaletxean du. Ez du langilerik.

Txosten hau idazteko egunean, fundazioaren estatutuak ez dira NAOn argitaratu.

Eraketa hori baino lehen, Nafarroako Gobernuak, 2006an, plan estrategiko bat enkargatu zion Nasursa sozietate publikoari, Yesa fundazioarentzat plan estrategiko bat egin zezan, 199.666 euroko prezioan.

Honakoak dira Yesa fundazioaren xedeak: jarduketa plan estrategiko bat kudeatzea; ondare natural eta kulturala babestea; ingurumena zaintzea eta paisaia kontserbatu eta hobetzea; bizikaltateari, ondareari eta landa inguruneko teknologia berriei buruzko azterlanak sustatzea; azpiegiturak egin eta mantentzeko proiektuak egitea eta haiek sustatu eta finantzatzea; komunikazio bide tradizionalak lehengoratu eta balioan jartzea; landa-inguruneko kolektiboekin lotutako prestakuntza- eta enplegu-programak diseinatu eta egitea; ekonomia soziala sustatzea; ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-praktikak garatzea; eskualdeko turismo kultural eta ingume-

nekoa bultzatzea; animazio soziokulturala egitea; eta landa-garapenaren sustapenarekin lotutako ekimen eta programa publikoak sustatzea.

Esa fundazioa patronatu batek zuzenduko du. Honakoak dira patronatukideak: Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia; Ingurumen zuzendari nagusia; departamentu horretako idazkari teknikoa; Navarra de Suelo Residencial sozietateak izenpetutako bi pertsona; Xabier, Irunberri, Ledea, Zangoza eta Esako alkate-udalburuak. Kideak patronatuko partaideak izanen dira beren karguetan dirauten bitartean.

Nafarroako Gobernuak, urte horretan bertan, 30.000 euroko ekarpena egin zuen fundazio hori eratzeke.

Honela laburbiltzen da haren jarduera ekonomiko-finantzarioa:

2007ko ekitaldia

Jarduketa bakarra Nafarroako Gobernuak eraketarako emandako ekarpena da, 30.000 eurokoa. Diru-sarrera hori Fundazioak finantza-entitate batean irekitako kontuan egiten da.

2010eko ekitaldia

Nafarroako Gobernuak 100.000 euroko kapital-transferentzia bat egiten du, Yesa fundazioa osatzen duten bost toki entitateei zuzeneko laguntzak emateko. Halaber, ondorio horietarako izenpetzen den lankidetzak-hitzarmena onesten du. Yesa fundazioak Nafarroako Gobernuaren entitate kolaboratzaile gisa jarduten du toki entitate horiei bideratutako laguntzak kudeatzeko. Laguntza horiek honako xede eta zenbatekoak dauzkate aurreikusita:

- Esako Udala: 11.737 euro argiteria publikoa hobetzeko eta bideak, kale-hormak eta zabortegia egokitzeko.

- Xabierko Udala: 10.773 euro, igerileku publikoan helduentzako soinketa-aparatuak jartzeko, zeharkaleko bide-segurtasuna hobetzeko eta udal lorategietako instalazioak modernizatzeko, ureztatzeko-sistemaren berrikuntza barne dela.

- Irunberriko Udala: 19.556 euro gizarte-etxeko galdarak berritzeko, energia aurrezte aldera, haur parkerako kulunka bat erosteko, musika-bandaren entseguetarako lokalerako altzariak erosteko eta Zaraitzu ibaiaren ertzeko aisiarako esparrua hobetzeko.

- Zangozako Udala: 45.640 euro argiteria publikoaren sareak berritzeko eta Zuhaitzaren plazan eta San Sebastian eta Balate kaleetan zola jartzeko, eta Magdalena kalearen luzapenean argiteria publikoa jartzeko.

- Ledea Udala: 12.291 euro herriko udaletxean obrak egiteko eta bertarako altzariak erosteko, udal hilerriko horma konpontzeko eta udaletxe plazako hormak ixteko.

Ikus daitekeen bezala, diruz lagundutako jarduketak ez datoz egiazki bat fundazioaren xedeekin, eta ez diote, ezta ere, erantzuten lurralderako ekintza-irizpide bakar bati. Besterik ezean, udalentsako laguntzak dira, beren beharrak finantzatzekoak.

2011ko ekitaldia

Nafarroako 2011rako aurrekontu orokorretan, kapital-transferentzietan, Yesa fundazioarentzako kontusail bat ageri da, 132.150 euro egiten duena. Kontusail hori ez zen bete, azkenean.

2011ko otsailean, Nafarroako Gobernuak, udal bakoitzaren izenean, 2010eko diru-laguntzari zegokion 100.000 euroko ordainketa egin zuen fundazioaren kontuan, entitate bakoitzak egindako gastuen dokumentu bidezko justifikazioa aurkeztu ondoren.

2011ko uztailean, fundazioaren kontutik udal bakoitzari zegokion zenbatekoa aldatu zen.

2011ko abenduaren 31n, fundazioaren kontuaren saldoa 30.015 eurokoa zen. Zenbateko hori bat dator Nafarroako Gobernuak eginiko hasierako ekarpenarekin eta ekarpen horrek sortutako interesekin.

Txosten hau idazteko egunean, ez dago jasota fundazioak eragiketa gehiagorik egin izana.

Aurreko iruzkinak kontuan hartuta, hona gomendioak:

Nafarroako Gobernuari gomendatzen diogu behar diren erabakiak har ditzala fundazio hori desegin eta likidatzeko.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzaileria arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

ESAKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Esako Udalaren Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, ondoren transkribatzen dugun erabakia hartu zuen, besteak beste:

"Ikusita udal honi buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldiari buruzkoa, Esako Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako kideek aho batez onetsita –legez eska daitekeen gehiengoa da–, erabaki du adieraztea txostenaren edukiaz jabetuta dagoela, hartan jasotako gomendioak bere egitea, ente ordaintzaileekin hitz egiten hastea eta erabaki hau Kontuen Ganberari helaraztea".

Hori jakinarazten dizut jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan. Komunikazio honen kopia sinatu beharko duzu. Ohartarazten zaitut erabaki honen aurka zuenean administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu ahal duzula Administrazioarekiko auzien dagokion jurisdikzio-organon, jakinarazpen hau jaso eta bi hilabeteko epean edo, lehenago, nahi izanez gero, gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hilabeteko epean. Halaber, nahi izanez gero eta beste edozein errekurtso baino lehen, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko duzu egintza hau eman duen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean.

Esan, 2013ko martxoaren 18an.

Alkatea eta idazkaria

TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIAK ESAKO UDALARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Zuzendaritza nagusi honetan Esako Udalaren 2011ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena jaso dugu. Martxoaren 22ra arteko epea ematen da alegazioak aurkezteko.

Emandako epean, ondoko alegazioa aurkeztu dugu:

Txosteneko 23. orrialdean esaten da Udalak, 2009an, libreki erabiltzeko diru-laguntza bat eskatu ziola Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio-ko Departamentuari, eta lortu ere egin zuela. Diru-laguntza hori 2009-2012 Tokiko Inbertsio Planari zegokion eta xede zuen "Argiteria obrak zabaltzea" 46.009 eurokoa zen diru-laguntza, eta 2010ean ordaindu zen. Libreki erabiltzeko diru-laguntza horiek ezaugarri bat badute: onuraduna den Udala bera da haien xedea erabakitzen duena. Aipatzen da, besteak beste, toki eskumeneko inbertsioak finantzatzeko erabiliko dela.

Diru-laguntza horren justifikazioari buruz Udalean eskuragarri dagoen dokumentazioa dela-eta honakoa adierazi behar dugu:

- Ez dago jasota egin beharreko obraren ez proiekturik, ez aurrekonturik.

- Fakturak, guztira, 52.650,84 euro egiten dute, eta teorikoki Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztu zizkion egindako obraren justifikazio gisa. Faktura horiek guztiek 2009ko data daukate, eta honakoa esan behar dugu haiei buruz:

1. Kontabilitatearen ikuspuntutik, "Argiteria zabaltzea" inbertsioen kontzeptuan, 2010ean soilik aurreko fakturretatik bat erregistratu zen, egindako lanei zegokiena –zehaztu gabe zeuden–. Elektrizitate enpresa batek egina zen eta 20.145,44 euroko zenbatekoa zuen.

2. Gainerakoa –hau da, 32.505,40 euro– aipatutako obrarekin zuzenean lotuta ez zeuden fakturari zegokien. Faktura horiek aurrekontuko gastu arrunteko zenbati kontusailetan kontabilizatuta zeuden. Fakturak udal ekipamenduen mantentzearekin lotutako gai batzuei egiten zin erreferentzia: eraikuntza-materialak eta lorezaintzakoak, igerilekua eta abar.

Aurreko informazioa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren diru-laguntzari buruzko espedienteko datuekin alderatuta, honakoa adierazi behar dugu:

- Udalak, diru-laguntza eman baino lehen, egin beharreko obraren aurrekontu bat aurkeztu zuen, 61.275,77 euro egiten zuena.

- Egindako lanak justifikatzeko, zenbateko hori jasotzen duen faktura baten kopia kautotua aurkeztu zuen, bai eta inbertsio horietarako beste administrazio publiko batzuetatik diru-laguntzarik jaso ez izateari buruzko ziurtagiri bat ere.

- Bai aurrekontua, bai faktura a) atalean aipatutako elektrizitate enpresak eginak dira.

- Aurreko faktura hori ez da ageri ez erregistraturik, ez ordaindurik Udalaren kontabilitatean.

- Ganbera honek hornitzaile horri igorritako zirkularrari emandako erantzunean, faktura hori ez dago jasota Udalaren izanean egindako fakturen zerrendan.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu egiazki 2010eko urtarrilaren 15ean 61.275,77 euroko faktura aurkeztu zela Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusian, bai eta idazkariaren ziurtagiri bat ere, non jasota baitago Esako alde zaharreko argiteria publikoa zabaltzeko obrak egin direla 2009-2012 urteetarako Tokiko Inbertsio Planaren indarraldian, eta erabilera libreko ekarpenen aplikaziorako aurreikuspenen barruan daudela, eta haiek direla-eta ez dela inongo beste entitate publiko nahiz pribaturen diru-laguntzarik.

Toki Azpiegituren Zerbitzuko teknikariak 2010eko urtarrilaren 20an egin zuen ikuskapen-bisita, eta egiaztatu zuen obrak eginda daudela, eta argi-puntuak kuantifikatu zituen. Puntu horiek bat datoz hasieran aurkeztutako aurrekontuan jasotakoekin. Hori ikusita, kasuko diru-laguntza ordaintzeari ekin zitzaion. 46.099,17 eurokoa zen diru-laguntza..

Are gehiago, adierazi nahi dugu erabilera libreko inbertsio horiek helburu dutela tokiko eskumenekoa den edozein inbertsio egitea, bai eta zorra amortizatzea edo hura finantzatzea ere, diruzaintza-gerakina negatiboa den kasuetan, eta inbertsio horiek egiteko ezarrita dagoen prozedura PII 2009-2012 Planaren garapen erregelamenduan jasota dagoela, eta planean jasotako gainerako inbertsioetarako ezarritakoaz bestelakoa dela.

Kasu honetan nahikoa da inbertsioaren kostuari dagokion faktura aurkeztea. Hori dela eta, ez da obraren jarraipenik egiten, hasten denetik amaitzen denera, beste kasu batzuetan egiten den bezala; izan ere, soilik egiaztatzen da eskaeraren xede den inbertsioa bete egin dela.

Ganbera honek eginiko txostenean jasotzen den gainerako informazioari dagokionez, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak jakinaren gainean dagoela adierazten du, eta behar diren neurriak hartuko ditu aipatutako diru-laguntzaren itzulketari espedienteari hasiera emateko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 21ean.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusia: Francisco Pérez Arregui

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAK ESAKO UDALARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2013ko martxoaren 15ean, Kontuen Ganberak igorritako behin-behineko fiskalizazio txosten bat, Esako Udalaren 2011ko ekitaldiari buruzkoa.

Txostenak martxoaren 22ra arteko epea, egun hori barne, ematen du alegazioak aurkezteko, eta ohartarazten du ez direla aintzat hartuko eta ez zaizkiola txostenari gehituko argiro eta zuzenean hartan ateratako ondorioei eta emandako iritziei buruzkoak ez direnak.

Emandako epean, ondoko ALEGAZIOAK aurkeztu ditugu:

LEHENA. - Txosteneko 21-22 orrialdeetan (VI.4.1 atala) Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Esako Udalari 2010ean emandako diru-laguntza bat aipatzen da.

Txostenean esaten da diru-laguntza hori 1990eko uztailaren 15eko Ministerio Aginduaren babesean ematen dela. Horretan, akats tipografiko bat badago, zeren eta aipatutako diru-laguntzak 1999ko uztailaren 15eko Aginduan araututa baitaude. Agindu horretan, izan ere, tokiko garapena sustatzeko eta I+E kalifikazioa duten proiektuak eta enpresak bultzatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak ezartzen dira.

BIGARRENA. - 2010eko otsailaren 11n, Esako Udalak eskari bat aurkeztu zuen aipatutako diru-laguntzen deialdian parte hartzeko. Udalaren xedea zen merkatu-azterketak eta tokiko sustapen kanpainak egitea. Aurkeztutako proiektuak izena zuen "Esaren eta Esa urtegiko ingurunearen sustapena eta garapena".

2010eko martxoaren 24an, aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak proposatu zuen Esako Udalak eskatutako diru-laguntza ematea. 10.379,30 euroko diru-laguntza zen (eskatutako diru-laguntzaren % 70). Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 14an eman zuen 955/2010 Ebazpenaren bidez eman zen diru-laguntza.

2010eko abenduaren 27ko sarrera-zenbakiarekin, Udalak justifikazio tekniko eta ekonomikoak aurkeztu zuen, zeina baitzen egindako merkatu-azterlanaren kopia bat, 178/2010 zenbakiko fakturaren jatorrizko alea, azterlana egindako enpresak egina, eta hura ordaindu izateari buruzko banku-egiaztagiria.

1999ko uztailaren 15eko Aginduko 5. artikulua ezarri zuen diru-laguntza kobratzeko aurrez onura-

dunek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dutela:

a) Enpresaren, entitatearen edo pertsona fisikoaren ziurtagiria, emandako zerbitzuari buruzkoa.

b) Zerbitzu horren kostua egiaztatzeko fakturen jatorrizko alea edo kopia konpultsatua.

c) Diru-laguntzaren xedea den azterlan edo txostenaren kopia osoa, bai eta dokumentuen edo idatzizko txostenaren kopia ere, kasuko kanpainak egin direla ziurtatzen dutenak.

d) Diru-laguntza jaso duen entitateak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak ordainduta dituela edo haietatik salbuetsita dagoela egiaztatuko duen ziurtagiria.

Dokumentazio hori aztertu ondoren, entitate onuradunak aipatutako arauetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztua zuenez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 30eko 1034/2011 Ebazpenaren bitartez, Esako Udalari 10.377,50 euro ordaindu zitzaizkion; kopuru horrek, izan ere, aurkeztutako fakturaren (14.825,00 euro, BEZik gabe) % 70 egiten du.

Esako Udalak ez zion Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinarazi 2011ko urtarrilean aholkularitza-enpresak 7.114,20 euro ordaindu zitzaizkion, Udalak azterlan horiek egiteko egindako lanen kontzeptuan.

Informazio hori dela eta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aipatutako diru-laguntza itzultzeko espedientea hasi du.

Iruñean, 2013ko martxoaren 20an

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea: M.^a Isabel García Malo

AHOKULARITZA ENPRESA BATEK ESAKO UDALARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak Esako Udalari buruz egin duen behin-behineko txostena bidali izatearen ondorioz idazten dizut.

Idazki hori dela eta, gustatuko litzaidake txosten horretan aipatzen diren alderdi batzuk argitzea, txostenean aipatzen diren ordenan, onuragarria delakoan zure erakundeak jakinaren gainean egon dadin.

Cilveti y Asociados Consultores SLk sekula ez zuen zalantzan jarri egin dituen azterlan eta proiektuak adjudikatzeko modua, zeren eta gehienguan bezeroa izaten baitzen iritzia eta aholku profesionala eskatzen ziguna proiektu edo azterlan horiek aurrera eramateko moduari buruz.

Kasu jakin batzuetan, proiektuaren edukia mugatzen genuen, zeren eta, guztiok dakigun bezala, gisa honetako azterlanak beti kontratatutakoa baino zabalagoak izaten baitira. Esako kasu zehatzean, Udalak proposatu zigun azterlanaren zatirik handiena egitea, baina aukera zabalik utzi zuen haiek eta haien teknikariek azterlanean ordainpean parte har zezaten. Cilveti y Asociados Consultores SLk ez zuen gai horretan inongo ilegaltasunik ikusi, eta, hartara, baiezkota eman zion Udalaren enkarguari. Atal bat Udalak eginen zuen eta bestea kontratatutako aholkularitza-enpresak.

Jakinen duzuen bezala, azterlan hauetan egin beharreko ekintzak proposatzen dira –ez da ez ekintza, ez inbertsio zehatzik egiten–. Eskualdeko garapenari buruzko azterlanak dira, eta goian aipatzen ditugun kasuetako bakarrean ere ez dago azterlanetatik eratorritako jarduketa praktikorik.

Cilveti y Asociados Consultores SL enpresak bere jardueraren atal bat udalei tokiko garapenaren arloan zerbitzuak ematen ziharduen, 2011ko abenduan itxi zen arte. Izan ere, data horretan baja eman zuen Nafarroako Gobernuaren entitateen zentsuan, jarduerarik ez izateagatik.

Esan, 15 bilera baino gehiago egin ziren Udaleko teknikariek; Udalarentzat lan egiten zuten

kanpoko aholkulariekin; Udaleko zinegotziekin; Aragoiko entitateekin; Udaleko idazkariarekin; Ebroko Konfederazio Hidrografikoko langileekin, bai eta Esa herriko biztanleekin ere. Alabaina, gero ezin izan zen azterlanean proposatutakotik ezer ere egin, Udalak jakinen dituen arrazoiengatik.

Baliagarri izanen zaizulakoan,

adeitasunez, agur

Iñaki Cilveti Lecumberri

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Esako Udalak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta aholkularitza enpresa batek aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Hala eta guztiz ere, txosteneko IV.3 atalean, geroko egitate gisa, Esako Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko martxoaren 15ean hartutako erabakia gehitu dugu.

Iruñean, 2013ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

